



BETERRIKO ALDIZKARIA



AIURRI

1996ko otsailaren 23a. 31. zenbakia. Dohain banatzen da.

*Etxe arrotzean
etxekoandre*

GEHIGARRIA

*Martxoak 3
Hauteskunde
orokorrak*

oskorri & Maskarada

Martxoak
2
Larunbata

ALLURRALDE KIROLDEGIAN

22.00
orduetan

“landalan”



Martxoak
3
Igandea

TXIRRI MIRRI eta TXIRIBITON

ALLURRALDE KIROLDEGIAN

18.00
orduetan



1. **AURKIBIDEA.**
AIURRITARRAK
J.A. Rodríguez: "Zubia eraikitzeke gai ote?"
2. **GALDEZKA.**
Eta zu, joango al zinateke baserrira bizitzera?
3. **LARRAUL.**
Herria zuzpertzeko ahaleginak.
- 4-5-6. **ANDOAIN.**
Hirugarren udal batzarra ateak itxita.
OPA: Autonomoen eta profesionalen elkarte.
Ihauteriak.
7. **ASTEASU.**
Errepidea berritzen ari dira.
- 8-9. **BILLABONA - AMASA.**
Bateginik misio taldea.
Udal batzar iskanbilatsua.
10. **ZIZURKIL.**
Bertso ikastaroa.
11. **BASERRIA.**
Amasako Lizarraga baserriko esnezaleak.
- 12-13. **ERREPORTAIA.**
Etxe arrotz bateko etxeoandreak.
- 14-15. **ELKARRIZKETA.**
Mikel Arregi: Irudi batek mila hitz baino gehiago balio du.
- 16-17. **KIROLA.**
Zizurkilgo boleibol taldea indartsu.
18. **ERRETRATU ZAHARRA.**
19. **ZER BERRI? / LEHIAKETA.**
20. **AGENDA**

Argitaratzailea: Manuel Larramendi Kultur Bazkuna. **Egoitza orokorra:** Dr. Huizi kalea 15, 1-esk. 20140 ANDOAIN (Gipuzkoa) ☎ 30 07 32 Fax: 30 07 31
Babesleak: Aduna, Andoain, Asteasu, Billabona, Larraul eta Zizurkilgo Udalak. **Zuzendaria:** Antxiñe Mendizabal. **Maketatzailea:** Iñaki Garmendia.
Erredakzioa: Antxiñe Mendizabal eta Ainhoa Oartzabal
Argazkiak: Manu Mujika **Komikia:** Iñaki G. Erro.
Publizitate arduraduna: Iñaki Otamendi. **Banaketa arduraduna:** Iñosken Mujika. **Administratzaile-eragilea:** Kepa Sarasola. **Inprimategia:** Gertu Kop. E. (Zubillaga, Oñati). **Filmaketa:** VideoCys, Donostia. **Legordailua:** SS-202/94 ISSN: 1134-0614
Tirada: 3.500 ale.

OHARRA: Bazkun argitaratzaileak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritziaren gaineko inolako erantzukizunik.



Zubia eraikitzeke gai ote?



J. A. RODRIGUEZ
"TXIKI"

Egia azaldu behar dizut, irakurle. Oraingo honetan ez nuen oso garbi zertaz idatzi. Gai batzuk nembilzkien buruan, baina, nonbait, ez erabat gustokoak, edo, kasuren batean, agian, ez naiz ausartu. Eta azkenik, bai, betiko nire "ohiko gaira" joko dut, hau da historiara. Bai astuna, pentsatuko du batek baino gehiagok!

Baina, lasaitu zaitez, ez baitut oso atzera joko. Eta, besterik ere, badakit zutabe labur hau ez dela tokia zenbait gai azaltzeko, gai horiek gutxieneko sakontasunarekin aztertzea eskatzen baldin badute, behintzat. Baina, tira, printza hauek norbaiti go-goeta egiteko baliagarriak gertatzen bazaizkio, ni gustora.

- 1970: urte benetan gogorak Francoren azkenekoak, errepresioa eta salbuespen-egoerak noiznahi eta nonnahi. Horren aurrean euskal demokraten artean -abertzaleak izan ala ez izan- alkartasuna nagusi. Desberdintasunak eta eztabaidak, horixe baietz, baina helburu amankomuna: diktadurari aurre egitea.

- 1975: Franco hil da! Hura poza euskaldun gehienen bihotzetan. Bukatu da amets gaiztoa eta ilusio eta itxaropenerako garaia iritsiak dira. Orain bai, urtetan ukatu zaiguna onartu egin beharko, orain bai, aske izateko aukera. Baina... ametsak ustel.

- 1978: Espainiako konstituzioa onartu da. Kontsentsuaren izenean eta -ze demontre, zergatik hau ukatu- militarren "arma hotsen" artean, ordura arte uste sendo ziren batzuk bertan behera utzi behar izan ziren, besteak beste, autodeterminazio eskubidea.

Goibeldu dira abertzaleen bihotzak. "España de las autonomías" delako hori al zen dena? Akabo gure ilusioak, gure ametsak. Betikoa, euskaldunei kate motz.

Hala eta guztiz ere, batzuek honela pentsatzen zuten: hau ez da guk nahi genuena, baina, oso mugatua den arren, aprobetxa dezagun zirrikitu hori, erabil dezagun eskuetan jartzen diguten tresna hori aurrera egiteko. Ezta pentsatu ere, besteek. Tinko eutsi eta borrokara jo, bitarteko guztiak erabiliz gainera, gure eskubideak ukatzen dituen estatu zapaltzaile horren aurka.

- 1979-96: Autonomiaren tresnak bere emaitzak eman ditu, baina jadanik agortzeaz dago. Indarkeriaren estrategiak sufri-mendu itzelak eragin ditu: emaitzak? Oraingoz behintzat, ez agerikoak. Euskal-gizartea? Bi lerrotan lerratua, gero eta paralelagoak direnak, etab. etab.

- 1996: Denok bakea nahi omen dugu, baina indarkeria erabiltzen dugu, denok bakea nahi, baina geureari bakarrik eusten diogu, besteen arrazoak ulertzeko gutxieneko ahalegina egin gabe, denok bakea nahi, baina elkarrizketari oziopoak jartzen dizkiogu.

Bi ertzean arteko zubia egin nahi omen dugu, baina, hori bai, bakoitzak bere ertzetik, busti gabe, uretan sartu gabe. Ez dut esan nahi egun batetik bestera itsu-itsuan murgildu behar dugunik, baina urte honen buruan sikiera bainujantzia jantziko bagenu!



Aldizkari Emene, Fustek
Jantziaren Kultura
Sahararen laguntza jasotzen du.



Aldizkari Emene, Fustek
Jantziaren Kultura
Sahararen laguntza jasotzen du.

ETA ZU, JOANGO AL ZINATEKE BASERRIRA BIZITZERA?

Gaur egun askok hartu dute baserrirako joera: ez bertako bizimodua erraza delako, edota bizibide oparoa eskaintzen duelako; gehienetan herritik eta bertako zarata eta zalapartetatik urrundu nahi delako, baizik. Denek bilatzen dute baserriko lasaitasuna eta bakea. Mendiko zoko bakarti eta

ezkutu batera inondik inora, joango ez litzatekeenik ere, bada, ordea. Baserrirako joera izanda ere, lehendik ere baserria dutenei besteei baino errezago zaie. Hala ere, han eta hemen badaude bizimoduz aldatu nahi, baserri hondatuak berreraiki eta ametsa betetzea lortu dutenak.



Kontxi Campos, liburuzaina. Andoain

Bederatzi urte bete nituen arte baserrian bizi izan nintzen, eta orain ere gustoko dut. Gustatuko litzaidake bertan bizitzea, ez lehengo bizimodua eginez, baina bai, baratzatxo bat landuz eta abar. Gaur egun baserri joatekotan gabiltza, gainera.



Pello Tejeria, jubilatua. Aduna

Beharbada, bai. Orain kalean bizi naiz baina egunero etortzen naiz anaia- ren baserrira. Baserriko lanak asko gustatzen zaizkit, arbolak zaintzea batik bat. Hala ere, baserria oso lotua da; asteburuetan ere lan egin beharra dago. Kalean berriz, asteburuetan jai hartzen da, baina bestetik, baserrian nahi duzun orduan egin dezakezu lan.



Juan Antonio Galludo, langabea. Zizurkil

Kalean gustora bizi naizen arren, ez litzaidake batera axolako baserri batera joatea; beti gustatu izan zait baserria. Lasaitasun handiagoa dago mendian, ez dago autorik, ez lantegirik. Hala ere, baratza eta abere gutxi jarriko nituzke; egunerokoa ateratzeko nahikoak.



Jose Aizpurua, langilea. Billabona

Ni izatez baserrikoa naiz, baina gaur egun kalean bizi naiz. Anaia gelditu zen baserrian. Kalean gustora bizi naiz, baina beharbada, joango nintzateke berriro ere baserrira bizitzera. Egia esan, ez dut pentsatu ere egin.



Eider Izagirre, langabea. Asteasu

Ez dut uste, oso gogorra da eta. Baserriko lanak neketsuak dira, nahiago dut kaleko bizitza. Hori bai, mendian dagoen etxe batean bizitzea gustatuko litzaidake; mendia sanoagoa da, lasiagoa. Horretarako, dirua eduki behar da, ordea.



Maite Lucero, ikaslea. Andoain

Bai, asko gustatuko litzaidake, batez ere abereekin eta aritzeko. Asko gustatzen zaizkit. Aiton-amonek eta osaba-izebek badute baserria, eta asko gustatzen zait bertara joatea. Urruti samar daude, baina kotxean joaten garenez...

S T O P
LIBURUDENDA
TESTU LIBURUAK
AUKERA ZABALA LIBURUTAN
(Ingelesez, frantsesez,
italieraz...)
Agustin Leitza 27 ANDOAIN ☎ 59 16 03



GOSARIAK - APERITIBOAK
BILARRA
GIRO EDERRA!!
KALE NAGUSIA, 20 - ANDOAIN

ARANBURU
agentzia
PROFESIONALAK GARA
Kaleborria, 26 behea
☎ 59 08 14
ANDOAIN
winterthur

HERRIA ZUZPERTZEKO AHALEGINAK

Iparraldera egin dute txango bat; Zerainera egingo dute bestea

Herri txikiak, egunetik egunera, txikiago gelditzen ari dira. Nekazaritza bizi diren herriek etorkizun beltza dute, eta beraz, herritar asko, kalera joaten dira lanera. Ondorioz, herriko bizilagunen kopurua gutxituz doa. Larraul zuzpertzeko eta bertako bizilagunek lana edukitzeko egitasmo ezberdinak ari da aztertzen Udala.



Gazte gutxi bizi dira herrian

Iparaldeko nekazal herri batean eta Gipuzkoako Zerain herrian izan dira Udaleko hainbat ordezkari. Bertako herritarren bizimodua nolakoa den eta herri txikiak nola dinamizatu ikusi dute txangoetan. Helburua Larraul hutsik ez gelditzeko garatu daitezkeen egitasmo ezberdinak ezagutzera izan da: herriko ekonomia nola antolatu, ze eskaintza kultural garatu, eta finean, herritarren beharrei nola erantzun.


Herrian gero eta jende gutxiago bizi da eta egun, ehun eta berrogei bizilagun bakarrik gelditzen dira. Haur gutxi jaiozen dira eta mutil zaharrak berriz, ugartuz doaz. Alkateak esan digunez, industria indarrean zegoenean, bizilagun asko joan ziren beste herrietara bizitzera. Gaur egun ere, nahiz eta lanpostuak asko gutxitu, baliabideak eta lantegiak herri handiagoetan daude, eta jendeak bertara jotzen du: herriko haurrek, adibidez. Asteasuko eskolara joan behar izaten dute ikastera. Gainera, hogeita hosi baserri bakarrik daude; ez da egin bertako jendea herrian gelditzeko etxebizitza berriak.

Herritar guztientzat Zerainera bidaia

Zerainera joan ziren Udal ordezkariak: bertako oilasko granja, herria herritzeko egin dituzten lanak, eta bizilagunen asmoak aztertu zituzten, besteak beste, ber-

tan. Udal ordezkariak esan digutenez, bertako herritarrek argi dute herria bizirik mantentzeko ahaleginak egin behar dituztela. Larrauldarrek ere kezka bera izan dezaten nahi dute udal ordezkariak. Martxoan joango dira Zerainera, eta udal ordezkariak gain, herritar guztiak joan ahal izango dira bertara.

Herria zuzpertzeko dauden aukera ezberdinetaz galdetu diegu, eta 5-B egitasmoak eta turismoak eskaintzen dituzten baliabideak aztertzen ari direla erantzun digute. Hala ere, argi dute herritarren ideiek eta ekimenez aterako dutela herria aurrera, nahiz eta egitasmo ezberdinek laguntza eman. 5-B egitasmoak, Larraul bezalako herriari ematen dizkie laguntzak; kokagune zailko herriari, alegia. Nekazal garapena du egitasmo horrek helburu. Azkenik, turismoak nekazal herri baten izaera ez ote duen aldatuko galdetu diegu: *"turismoa bere neurrian, ondo dago, eta baserriak mantentzen laguntzen badigu, ondo etorria izan dadila"*, erantzun digute.



- kutxa fundazioa
- fundación kutxa

- gipuzkoa donostia kutxaren
- gizarte-ekintza
- obra social
- de la caja gipuzkoa san sebastián

Argitarapen honen edizioako laguntzaile: En la edición de esta publicación colabora:



HOL - ATZ

VACSOL - WIRTRATAMENDUA EGURRARENTZAT



PITZADURA, PIPI eta HEZETASUNAREN AURKAKO TRATAMENDU FIDAGARRIA

Elbarrena, z/g.
☎ 69 30 63 - 69 07 34
ADUNA



JUAN ANTONIO URBIEITO

Garrantzako: 16m. gara

Urte osoan su egitura

Bere gardian lastoa eta belarri

Kale Nagusia, 4 - 2. ASTEASU

Tel. 69 30 92 - 69 26 76

HIRUGARREN UDAL BATZARRALDIA ATEAK ITXITA

- EAK eta IU-EBk ez zuten parte hartu
- HBk alkatea auzitara eramango omen du

Alkateak udal batzarraldia bi aldiz bertan behera utzi ondoren, gobernu taldeak goizeko zortzieta-rako iragarri zuen hirugarren bilera. Azkenean,

Senideak elkarteko kideak pankarta berberak zabalduta, eta kentzeko asmorik ez zutela, udal batzarra atek itxita egitea erabaki zuen alkateak.

PSE-EEK, EAJ-PNVk eta PPK hartu zuten bertan parte; ez ordea, EAK eta IU-EBk. Senideak ezin izan zuen Jose Mari Urdanpilleta preso andoindarraren hurbilketa proposatzen zuen mozioa aurkeztu. Hiru prentsaurrek jarraitu zioten gertaerari.



Senideako kideak eta kazetariak baino ez ziren udal batzar aretoan geratu

HBk alkatea eta EAJ-PNV legez kanpo jokatzen ari zirela adierazi zuen: batetik, udal arautegian pankartak zabaltzea galeratzen duen erabakirik ez dagoelako; bestetik, udal batzarra orduz aldatzea legez kontrakoa delako, hala nola batzarrak jende aurrean ez egitea. HBk adierazpen askatasunaren aurkako jokaratzat jo zuen alkatearen erabakia. Pankartak PSE-EE eta EAJ-PNVk Senideak aurkeztutako mozioa atzera egitearen ondorio zirela adierazi zuten erakunde horretako kideek, eta nola edo hala mozioarekin aurrera jarraituko dutela.

Gobernu taldea osatzen duten PSE-EEK eta EAJ-PNVk, eta PPK ere parte hartu zuen ondorengo prentsaurrean:

pankartak iraingarri eta mehatxatzailetzat jo zituzten. Ezinbestean itxi behar izan omen zituzten atek Udalaren funtzionamendu normala berreskuratzeko eta indarkeria giroa saihesteko. Bestalde, EAK batzarrean parte hartu ez izana tamalgarritzat jo zuten. PPKo ordezkariak horrelako ekintzak normalatasuna eta bake giroaren aurkako talde erradikalen estrategia direla adierazi zuten.

"Kritika politikoa"

EAK kritika politikotzat hartu zituen pankartak, zenbait

hiritarren adierazpen askatasunaren izenean eginak. Bestalde, Senideak elkarteari bere jarrerari buruzko hausnarketa egitea proposatu dio: "Zuen mozioa onartu egingo dela jakinda, zergatik ez dituzue zuen jokabideak neurtzen?". Bestalde, Udal araudiak kontrakorik esaten ez duen bitartean, udal batzarrak arratsaldeko zazpitan egin behar direla uste du. Horregatik, proposatzen du talde guztien arteko eztabaida, aurrerantzean jokabideak argi daitezkeen. Hala ere, alkateak jasandako "mehatxu ezkutuen" aurrean, alderdiaren alkartasuna adierazi du.

IU-EBk ez zuten udal batzarraldian parte hartu, bere esanetan, hiritarren partehartze eskubidea ukatzen delako, udal araudiak batzarrak arratsaldeko zazpitan eta jende aurrean izan behar dutela zehazten baitu.

ODOL EMAILEEN OHARRA

Hilaren bigarren asteko asteartetan egongo dira urte osoan zehar odol emaileak 18.00etatik 20.30etara osasun zentruan.

PEÑA HIPIKA ANDOAINDARRA Astero 5.000 pezeta irabazteko aukera

Duela sei urte sortu zen. Lagun-Artea tabernan elkartzen dira eta Joxe Mari Portuburu aita-emeak, Iñaki Pagolak, Juan Marinek, Salvador Gonzalezek, Gurutz Pagolak eta Alberto Garaioak osatzen dute taldea.

Donostiako hipodromoko karrera sasoiak ireki berri da. Sei lasterketa besterik ez dira, baina andoaindarrak igandero joaten dira zaldi lasterketetara Lagun-Artea tabernan antolatzen den kinielako berrogei partaide inguruei emaitzak ekarri eta irabazleari saria emateko. Donostian lasterketak bukatu ondoren, Madrilgo zaldi lasterketa sasoiari emango diote hasiera eta aldi berean kiniela berri bati. Kinielaz gain ordea, *peña*-koek untero egiten dituzten bi bidaiak garrantzitsu: Madrilera eta Parisera egiten dituzte zazpi urtez geroztik ibilaldiak lasterketa nagusiak ikustera.




Juan Marín, Joxe Mari Portuburu eta Iñaki Pagola

Lagun-Artean 200 pezetako apostua egin eta astero 5.000 pezeta jasotzeko aukera dago. Kinielan parte hartzeko edozein andoaindarrak dauzka *peña*-ko atek irekita. Herriko zaletuek ezezik, inguruko herrietakoek ere hantzen dute bertan parte. Donostia inguruko herrietan zaldi lasterketekiko zaletasuna handia baita. Herrian beste *peña* bat ere badago: Ondarreta tabernan elkartzen den *Peña Ondarreta*, alegia.

OPA: AUTONOMOEN ETA PROFESIONALEN ELKARTEA

"Beste langileekin konparatuz askoz ere egoera okerragoan gaude"

Hiru aldiz elkartu dira dagoeneko sortu berria den Andoaingo autonomoen eta profesionalen elkarteko 40 kideak. OPA elkarteak Toledon sortu zen berez, eta geure artera iritsi aurretik indar handiko mugimendua sortu du Espainia osoan. Orain dela hilabete batzuk hasi ziren Hego Euskal Herrian elkarteak ezagutzera ematen, eta herriz herri ari dira taldeak sortzen, autonomoen eta profesionalen ahotsa behar den lekuan entzun dadin.



Orain arte Leitzaran jatetxean bildu dira

Andoaingo elkartekideei elkarteak, besterik gabe, lorpen handia iruditzen zaie, orain arte herriko arlo ezberdinetako autonomoak ez baitira inoiz elkartu. Beren esanetan, autonomoek, oro har, beren eskubideei eta betebeharrei buruz batere informaziorik ez dute, agindutakoa txintik esan gabe betetzen dutelarik. Egoerari aurre egiteko elkartu nahi dute, eta legezkoak dituzten aldarrikapenak exigitu.

Jubilazioak, bajak, pentsioak, dirulaguntzak, zergak eta beste asko dira kezkatzen dituzten gaiak. Beste langileekin konparatuz askoz ere egoera okerragoan daudela iruditzen zaie, enpresetako langileek, behintzat, beren sindikatuak dauzkatala iruditzen baizai. Beren esanetan, gehiegizkoak dira ordaintzen dituzten zergak, eta ordainean, oso gutxi legeak aitortzen dizkien eskubideak.

Denda eta negozio txikiak

Bestalde, gure herrietako profesional eta autonomo gehienak ez dira enpresari handiak. Asko eta asko, langabezian geratu eta negozio txikiak ireki behar izan dituzten herritarrak dira. *"Enpresari handiek porrot egiten dutenean dirulaguntzak izaten dituzte -esan digu elkartekide batek- guk berriz, ezerez".* Ordaintzeko orduan handien tratu berbera ematen dietela diote, baina arazoak daudenean, batere laguntzarik ez dutela iruditzen zaie.

Elkarteak sortu berria da, baina partaideak gogo handiz hasi dira lanean, beharra ere handia dutela iruditzen baizai. Elkartekideek herriko profesional eta autonomo guztiei dei berezia egiten diete taldera bil daitezen, edozein eskaera egiteko lehenengo urratsa elkartzera baita. Bestalde, lorpenak ere

ilkusten hasiak dira: Espainia mailako erakunde honek Lan Ministeriatzarekin harenanetan, urtero izan ohi duten zergen igoera asko murriztea lortu baitu. Elkarteko partaide izateko 8.000 pezeta ordaintu behar da urtean, eta guztiak si-

netsita claude, zenbat eta lagun gehiago elkartu, lorpenak ere handiagoak izango direla. OPA erakundeak aurki irekiko du Donostian bulegoa autonomoek eta profesionalak dauzkaten kezkek eta arazoak bideratu ahal izateko.

BIDASOA ARROAN ZEHAR

Euskalduna mendigoizale taldearen gonbitea

Euskalduna mendigoizale taldeak martxoaren 17an egingo du Bidasoa arroa ezagutzeko antolatua duen hirugarren ibilaldia. Maiatza bitartean beste bi irteera izango dituzte, eta gainerako hirurak uda eta gero izango dira irailan, urrian eta azaroan.

Hendaiako hondartza izan zen ibilbide osoaren abiapuntua, eta hainbat eta hainbat bide zeharkatu ondoren Otsondon izan du bigarren ibilaldia amaiera. Hirugarrenean, martxoan Otsondotik irteerako dira eta 1.074 metro dituen Gorramendi gailurra eta Meaka zeharkatu ondoren Izpegira iritsiko dira, laugarren irteeraren abiapuntu izanik.

Orain dela hiru urte ekin zioten mendizale hauek horrelako ibilaldiak antolatzeari: lehenengoa, "Ruta del peregrino" deitu zutena Peña Santiago medizale ospetsuaren omenez

egin zuten. Iaz berriz, Oria arroa ezagutzeko ibilbidea prestatu zuten. Oraingo honetan Bidasoa aldera jo dute, eta andoaindarrak ezezik, Bidasoa inguruko jende ugari biltzen zaie hilabetean behin egiten dituzten mendi irteeretan. Ibilaldiak sei edo zazpi ordukoak izan ohi dira gutxi gorabehera.

Haur eta gaztetxoentzako irteerak

Aipaturiko mendi irteerez gain, Euskaldunak hileroko, ia igandero, egiten ditu mendi irteerak, herriko eskolako neska-mutilekin. Hurrengo ibilaldia igandean bertan izango da. Hirumugarrieta (1.431m) izango da norakoa.



Azkarten gaztetxoak dominak jasotzen

INAUTERIAK

Kaldereroek, mozorro desfileak, sari banaketak, konpartsek..., osatu dute aurtengo egitaraua



Kaldereroen erreginak eta "Puskitas", bere damak, hainbat herritar ospetsu gogoratu zituzten pregoian: Maria Luisa Irizar korrikalaria, Kaletxikiko seme Kuttuna egin duten Abraham Olano, Aitor Mendiluze eta Jokin Sorozabal bertsolariak, eta maiatzaren 12an beaifikatuko duten Ama Kandida.



Ostegun gizen egunean hasi ziren ikastetxeetako neska-nutilak musikaz eta kolorez herria girotzen.



Hamar konpartsa eta hiru txaranga larunbat arratsaldean girotzeko.

KONTROLEK ETA MIAKETEK JARRAITUKO DUTE

Eusko Jaurlaritzako Barne sailak adierazi duenez, Fernando Mujika Herzogen hilketan leporatzen zaion ETako Donostiako komandoko bi kideak, herriko etxeren batean ezkutatuta egon daitezkeen iritzia oraindik indarrean dago. Hori dela eta, momentuz Andoainen eta inguruetan ziurtasun neurriak direla eta, kontrolek eta miaketek jarraituko dute.

Aientatuaren ondorengo egunetan egin zituzten Ertzaintzak nahiz Goardia Zibilak kontrolrik zorrotzenak, kale, etxe eta bestelako aretoetan miaketa ugari eginez. Goardia Zibila HBko udal zinegotzi baten etxeko atea lehegailuz botatzera ere iritsi zen. Gainerakoan, ertzainek herriko hainbat etxebizitzetara jo dute galderak eginez eta ustezko komando kideen argazkiak erakutsiz.

Amnistiaren Aldeko Batzordeak Ertzaintzaren nahiz Goardia Zibilaren jarrera gogor kritikatu zuen, hala nola alkatea bera, herritarrei Ertzaintzari ikerketa lanetan laguntzeko luzatu zuen eskariagatik. Alkateak, bestalde, poliziaren jokabidea zela eta, oro har, herritarren kexurik ez zuela jaso adierazi zuen prentsaurrean.

Miaketa lanak direla eta, Ertzaintzak nahiz Goardia Zibilak Andoainen, Asteasun, Billabonan eta Zizurkilen azken egunotan identifikazio ugari eta miaketa lanak egin dituzte.

AUTOBIAREN AURKAKO EKINTZAK LEPORATZEN DIZKIETE

Irurtzun-Andoain autobidearen aurkako ekintzak leporatzen zaizkien Andoitz San Sebastian, espetxean dagoen Aritz Arnaiz, Juan Jose Petrikorena, HBko udal zinegotzia, eta Xabier Lekuona andoaindarraren aurkako auzian, hiru epailek ez zuten frogak baliagabetzea onartu, eta batek bakarrik adierazi zuen aurkako iritzia. Epaimehainak Auzitegi Gorenak esandakoari jarraitu dio, eta argudio berberak erabili ditu frogak baliagarritzat jotzeko. Defentsak erabakia errekurrituko duen arren, epailetak aurrera jarraituko du.

Lau akusatuek bestalde, leporatzen zaizkien ekintzak ukatu egin dituzte, eta Goardia Zibilaren aurrean eginiko deklarazioak beldurraren eta tratu txarren ondorio izan zirela adierazi dute.

ERREPIDEA BERRITZEN ARI DIRA

Asteasu eta Aia arteko errepide konponketak amaituko dituzte

Orain berritzen ari diren errepide zatia Agerre II. jatetxean hasi eta Ollotxe baserrian bukatzen da. Hiru kilometroko ibilbidea da berritzen ari direna, eta bidea garbitzen ari dira egunotan. Ondoren, errepidea egokitu eta segurtasun hesiak jarriko dituzte. Lanak zoruan brea botatakoan amaituko dira.

Hasiera batean errepidea berritzeko lanak negua baino lehenago egin nahi zituzten, eguraldi txarrak lanak ez oztopenazko. Azkenean, neguak bete-betean harrapatu ditu, baina hala ere, hasi dira errepidea eta lantegietako sarrerak garbitzen. Errepide alboetatik sasiak kentzen ari dira eta errepidean zehar dauden oztopoak kenduko dituzte. Diputazioa ari da lanak egiten, eta horretarako bi milioi inguruko aurrekontua dauka.

Zorua sendotu

Behin errepidea garbitu ondoren, hainbat ubide eta sakagune egingo eta berrituko dituzte errepidean zehar. Horrela urak bidean egin ditzakeen kalteak ekidindo dituzte. Errepidea egokitzeko eta hobetzeko beste zenbait lan ere egingo dituzte. Horrez gain, hogeita hiru metroko segurtasun hesi metalikoa jarriko dute bidearen alboan. Zorua sendotzeko berriz, bost zentimetroko lodiera duen geruza batez estaliko dute egungo errepidea.



Bidearen alboko ondo garbitzen ari dira

SANTA AGEDAN BILDUTAKO DIRUAREN NORAKOAK

Ehun eta berrogeita bost mila pezeta bildu zituzten Aiztondo elkartetik Santa Ageda egunean kantuan irten ziren herritarrek, eta El Salvador-era bidaliko dute dirua. Amnistiaren Aldeko Batzordeak antolatutako taldeak berriz, presoei emango die baserri bildutako dirua.

Ehun mila pezeta bidaliko ditu El Salvador-era, hogeita hamabost lagun bildu zituen taldeak. Asteasu, El Salvadorreko Meangera udalerriarekin eta bertako Segundo Montes herriarekin dago herrikidetua, eta horregatik bidaliko dute bertara dirua. 1993an Zizurkil herrikidetu zen udalerrri berberarekin eta hurrengo urtean, Adunak eta Asteasuk gauza bera egin zuten. Euskal Fondoren bidez, mila eta hirurehun etxebizitza egiteko egitasmoan lagundu dute aipaturiko herriek, baina larehun etxebizitza bakarrik egin dituzte orain arte, izan ere, nazioarteko laguntza ez zen etxebizitza guztiak bukatzeko nahikoa izan. Aurtengo Europako dirulaguntza jasoko dute egitasmoarekin aurrera jarraitu ahal izateko.

Santa Agedan bildutako dirua ordea, ziur aski, musika eskola bat egiteko izango da. Bertako haurrak aisia nolabait betetzeko eta drogatik uxatu nahian egingo dute eskola. Orain, eskualde mailan hezkuntza sistema indartzeko eta bertako irakasleak homologatzeko proiektuak burutzean ari dira.

Hamar urtez kantuan

AABk bildu zituen hogeita bost lagunak goizean eta arratsaldean aritu ziren Loidisaletxe eta Imuntzo bertsolariekin batera, bertotan, kantuan eta kalejiran. Bildu duten dirua presoentzat eta laguntzen dieten taldeentzat izango da. Bide batez, datorren hilean Joxe Lizaso preso asteasuarrak gose greba hasiko duela adierazi nahi izan digu AABk.



ILLUMBE, S.L.
Aste@elkarririkitaberna

LAN ELEKTRO-MEKANIKOAK
Pablo Gorosabel, 48
☎ 65 54 76 TOLOSA
Sorabilla Auzoa, 53 Poligonoa
☎ 59 24 11 ANDOAIN



**AURRERA
TABERNA**

Girorik ederrena gazteriarentzat!!
ZIZURKIL

BATEGINIK MISIO TALDEA

Hirugarren munduko haurrei laguntzeko ekimena martxoan

Duela urtebete sortu zuten bost neska-mutilek Bategin taldea sendotza bukatu ondoren. Hogei urte inguruko neska-mutilak dira, eta hirugarren munduko egoera konpondu nahian ari dira lanean. Zatorrako lokaletan biltzen dira, eta taldean gazte gehiago biltzea nahi dute.



Taldeko partaideak:

Mari Jose, Maite, Ainhoa eta Olatz. Ibon falta da

Otsailak 27an bilera

Martxoan, herrialde txiroetako haurrei laguntzeko ekimena jarriko dute martxan. Bost laguneko taldeak osatu nahi dituzte, eta talde bakoitzak, urtean, sei mila pezetako laguntza emango dio haur bati. Diru horrekin, besteak beste, haurrak behar duen edateko ura, elikagaiak eta ikasketak ordainduko dituzte. Horren truke, haurraren argazkia, bidalitako dirua zertan erabili duten, eta berarekin idazteko aukera eskainiko dute. Diru bilketa nola egin

erabakitzeko, bilera bat egingo dute Zatorrako lokaletan otsailaren 27an. Bilera arratsaldeko zortzietan izango da, eta informazio gehiago nahi izanez gero, 69 03 15 telefonora deitu, eta Ainhoaren galdera egin. Bestalde, jakinarazi digute, arropa biltzen duen taldeak, zuzenbidea aldatu dueña: Oriamendi kaleko 6.eko behe solairuan daude orain. Arropa, hileko lehen eta hirugarren astelehenetan biltzen dute, arratsaldeko bost terdietatik zazpi terdietara.

Hiru helburu nagusi ditu taldeak: hirugarren munduko egoeraz herri-tarrak kontzientziaraztea, bertako arazoei aurre egiteko egitasmoei laguntza ematea, eta parrokiako taldea denez, parrokiako ekimen ezberdinetan parte hartzea.

Urtebetean zehar hainbat ekimen egin dute Bateginekoek. Urta-rilean, eskolako umeen arteko ipuin eta marrazki lehiaketa antolatu zuten, eta hirugarren munduko arazoak eta egoera azaltzeko, hainbat hitzaldi eta erakusketa egin zituzten. Era berean, Ruandan umezurztegi bat egiteko dirua bildu dute. "Nabiz eta gu hirugarren munduko arazoa konpontzeko gai ez izan, zerbait egin dezakegu" diote Bateginekoek. Herrialde azpigaratuaren egoera hobetzeko dirua edota baliabideak emateaz gain, erakunde publikoak presionatu behar direla adierazi digute: "Hirugarren munduko egoerari ez zaio momentuko irtenbidea eman behar, behin-betikoa, baizik". Beraz, 0.7a eta antzeko ekimenak bultzatu nahi dituzte.

ODOL EMAILEEN OHARRA

Hona hemen urte osoko odol emaileen egutegia: martxoak 1, maiatzak 31, irailak 6 eta azaroak 21. Osasun zentruan elkartuko dira 19.00etan.



**ELEKTRATRESNAK
SUKALDERAKO ALTZARIAK**

AITZBELTZ

Arteta kalea, 1 eta 3
☎ 59 12 26 - Faxe 30 03 45
ANDOAIN

Mihikost

**LIBURUDENDA
PAPERDENDA**

Kale Nagusia, 20 - ☎ 59 16 57 -
ANDOAIN

ANTENA BERRIAK


Telebistarako eta telefonorako antena bana jarriko dituzte

Gaur egun antenak dauden lekuan, Loatzo mendian, hamazazpi metroko antena jarriko dute telebistako kate pribatuak hobeto ikusteko. Telefono mugikorrentzat berriz, hogeita hamar metroko antena jarriko dute, eta Airtel eta Telefónica Movil etxeek erabiliko dute.

Hemendik bi hilabetera hasiko da *Retevisión* telebista hobeto ikusteko antena jartzeko lanak. Egundik, telebista publikoa ikusteko antenen ondoren jarriko dute antena berria. Loatzo mendian dagoen Alustiza baserriaren ondoren, hain zuzen ere. Hamazazpi metroko antena jarriko dute, eta horretarako, 35 m²-ko lur saila erabiliko dute. Lur saila Udalak utziko du eta horrezaz gain, txabola baten eraikuntza bere gain hartuko du. Ordainean, antenaren mantenimendua enpresaren ardura izango da. Neurri horrekin, kate pribatuak hobeto ikustea lortu nahi da. Egundik kate horiek hartzeko dagoen antena kendu egingo dute berria jartzeko dutenean.

Bi enpresa ezberdinentzat antena bakarra

Telefono mugikorrentzat antena jartzea eskatu zuten *Telefónica Movil* eta *Airtel* etxeek. Enpresa bakoitzak, antena bana nahi zuen, baina Udalaren proposamena bi enpresek antena bakarra erabiltzea izan da. Hogeita hamar metroko antena jartzeko, 50 m²-ko lur saila emango zaie eta txabola bat ere egingo dute. Proposamena oraindik ere erantzuteke dago. Erantzun bezain pronto hasiko dira lanak.



Lebengo antenak dauden lekuan ezarriko dute berria

UDAL BATZARRALDI ISKANBILATSUA

Lurdes Zinkunegi atxilotuaren aldeko mozioa eztabaidatu zuten

Otsailaren hamalauko udal batzarraldian, tentsio une handiak eta iskanbilak gertatu ziren. Amnistiaren Aldeko Batzordeak aurkeztutako mozio bat eztabaidatu zuten Bidean eta HB alderdiek, udal aretoan zenbait herritar zeudelarik. EA eta EAJ-PNV alderdiko zinegotzirik ez zen agertu.

Amnistiaren Aldeko Batzordekoek eta HBk, mozioa puntuz puntu bozkatzea eskatu zuten; Bidean taldeak aldiz, mozioa bere osotasunean bozkatu behar zela zioten. Hori erabakitzen ari zirela, tentsio une handiak bizi izan ziren udal aretoan. Une batean, Joxi Mujika, alkatea, altxatu eta aretoetik joatea erabaki zuen, baina bertan zeuden herritarrek ez zioten iristen utzi. Azkenean, Bideaneko bost zinegotziak bildu, eta hitz egin ondoren, mozioko hainbat puntu onartu zituzten: Lurdes eta bere senitartekoei elkartasuna adieraztea, tratu txarrik jasoz gero, akusazio partikular moduan jardutea, espainiar indar polizialen kanporatzea eskatzea, eta Euskal Herrian bakea eta normalizazioa lortzeko elkarrizketaren bidea onartzea. Lurdesen atxilotetaren kostuak ordaintzea erabakitzeaz abstenitu egin ziren eta Lurdesen berehalako askatasunaren aurka bozkatu zuten. *"Lurdesen atxiloteta inongo frogarik gabe egin dute, eta Udalak Lurdesen berehalako askatasuna eskatzen ez badu, berriro ere antzeko atxilotetak gertatuko dira"* adierazi digute AABkoek. Alkateak ez du gertaerei buruz adierazpenik egin nahi izan.

Udaletxean pintadak eta herrian atxilotuak

"Alkatea faszista", "Zuen bakea errepresioa" eta antzeko pintadak egin zituzten udaletxean egun berean, eta Er-tzaintzarekin iskanbilak izan ziren iluntzean egin zen manifestazioan. Bestalde, Meltxor Paredes atxilotu zuten gauean eta Zizurkilgo Pedro Maria Argai HBko zinegotzia ere atxilotu zuten. Azken hau, hurrengo egunean askatu zuten. Bernardo Labaka zizurkildarraren etxea ere arakatu zuten.



BERTSO IKASTAROA

Bertsoak osatzeko moduak eta baliabideak ikasten ari dira

Urtarrilean hasi eta ekainean bukatuko da bertso ikastaroa. Hamabi urte inguruko sei neska-mutil elkartzen dira asteazkenero Iriarte Etxean, eta Amaia Agirre dute irakasle. Bertsoak egiteko baliabideak, errimak, neurriak eta bertsoak abesteko doinuak lantzen dituzte.

Pedro Maria Otaño ikastetxean bertso-lantzeari utzi zioten, eta ondorioz, bertsoak gustoko zituzten hainbat ikasleri bertso ikastaroa egiteko aukera eman zitzaion. Hala ere, ikastaroa ikastetxe guztietako haurrei dago irekita.

"Bertso idatziak egiten ditut batik bat; asko kostatzen zait bat-batean aritzea" esan digu iaiz Lazkao Txiki bertso-paper saria irabazi zuen Amaia Agirrek. Billabonatarra hainbat urtekin hasi zen Tolosako bertso eskolan eta Hernanikoan ibili ondoren, Tolosan elkartzen da gaur egun beste hiru lagunekin bertsoak antzeko.

Bertsoak abesteko eta egiteko guneak

Bertso ikastaroan, gehienbat, bertso idatziak egiten dituzte.

Amaiak astero gai bat ematen die haurrei, eta hurrengo asterako hiru bertso egin behar izaten dituzte gai hori erabiliz: *"Oinak eman eta bertso bat osatzeko esaten diet, beti ere paperean. Gutxitan osatzen ditugu bat-bateko bertsoak"*. Horrezaz gain, bertsoak abesteko doinuak erakusten dizkie. Errima lantzeko berriz, hitz bat esan, eta guztiek, bata bestearen atzetik, hitz horren errima bera duten hitzak esan behar izaten dituzte. Era horretan, errima lantzen dute eta hitz batek dituen errima posibleak ikasten dituzte. Ikastetxe askotan ez dute bertso-lantze lantzen eta ikasi nahi izanez gero, bertso eskoletara joan behar izaten dute. *"Hala ere, nabiz eta bertso-lantzean gazte asko aritu, bertsoak abesteko aukera gutxi dago"* esan digu, bukatzeko, Amaiak.



Asteartero iritzen dira bertsoan

ERTZAINZA HERRITAR BATEN BILA

Bi aldiz joan dira Iruña baserrira

Otsailaren zazpian, asteazkenena, ertzain ugari joan ziren Zizurkil goiko Iruña baserrira. Bertan, Gurutz Geresta atxilotu zuten, eta Hernaniko komisaldegian eduki zuten eguerdira arte. Gauean berriz, beste hainbat ertzain joan ziren baserrira arakatzera. Dirudie-nez, bertakoa den Jose Luis Gerestari, Fernando Mujika Herzogen aurkako atentatua burutu zuen komandoko kidea izatea leporatzen diote, eta bere bila dabilta.

Fernando Mujika Herzogen aurkako atentatua gertatu eta hurrengo egunean atxilotu zuten Gurutz Geresta zizurkildarra. Goizeko seietan atxilotu zuten eta eguerdira arte Hernaniko komisaldegian eduki zuten, Amnistiaren Aldeko Batzordekoek esan digutenez. Bere anaia den Jose Luis Gerestari buruzko, atentatuaren ustezko egiletariko bati buruzko galderak egin zituzten, hala nola zenbait senitartekoei eta lagunei buruz.

Iluntzean, baserrira arakatu zuten eta J.L. Gerestaren laneko zenbait paper eta gauza gehiago ere eramane zituzten. EAJ-PNVko Juanjo Aranburu alkatea, eta Gurutze Asuabarrena eta Xabier Pellejero HBko zinegotziak, bertara hurreratu ziren, baina ez zieten baserrira sartzen utzi.

Mujika

Ileapaindegi Mixtoa

- Solarium-a
- Tratamendu kapilarra etab...

ALDEZ AURRETIK ORDUA HARTU

Txermin kalea 16, ☎ 69 13 58
BILBARONA


ASESORIA
GESTORIA
ASEGURUAU

ALDAMA - TAPIA

KALITATEA ETA SEGURTASUNA !!

Kaleberria 22
Telefonoa 59 44 76 - 30 01 67

20140 ANDOAIN



Hauteskunde orokorrak 1996

MARTXOAK 3

Hauteskunde kanpaina bete-betean gaude. Martxoaren 3an, hauteskunde eguneko emaitzek argituko dituzte gobernu berriaren eta Diputatuen Kongresuaren osaketari buruz dauden hainbat aurriritzi. Zalantzarik gabe, estatu mailan berebiziko lehia dago alderdi populararren eta sozialistaren artean. Hala ere, Hego Euskal Herrian alderdi nazionalistek eta ez

nazionalistek badute beren ahots propioa, eta Madrilen beren oihartzuna entzun dadin eskatzen diete euskaldunei botoa. Hauteskunde orokor hauetara aurkeztu diren guztiei ez, baina esanguratsuenei egin die AIURRIk galdeketa. Hona hemen hauteskunde kanpainari, proposamenei, akordio eta hitzarmenei, eta Euskal Herriko arazo larrienei buruz jaso ditugun erantzunak eta iritziak.

Gema Zabaleta Areta

(PSOE)

Literaturan katedraduna. UGT sindikatuaren eman zituen lehenengo urratsak politikagintzan. Ondoren Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailean lan egin zuen. Diputazioko Ongizate saileko buru eta Madrilen senadore ere izan da. Madrilen talde parlamentari sozialistaren zuzendaritzan aritu da azkenengo urteotan. Udal zinegotzi izan da, halaber. Gaur egun Andoaingo PSE-EE idazkari orokorra da.



Ze emaitzak aurrikusten dituzu?

■ Nahikoa egoera zaila da. Azkenengo legealdia oso gogorra izan da. Dena den, etorkizunak bere alde onak ere baditu: eskuinak ez du gobernurako proposamenik egiten eta jendea aurkeztzen jakin, eta horrek gure alde egingo du. PP izugarritzko marketing kanpaina egiten ari da, J.M. Aznar gobernu buru aldarrikatuz. Baina inkestaren arabera, une honetan gu bigarren lekuan egon arren, oraindik ere aurrea har diezaiogegu. Dena den, gobernuan nahiz oposizioan normaltasun osoz aritzeko prest gaude. Emaitzak ikusi eta gero, saiatuko gara orain arte bezala alderdi nazionalistekin akordioetara iristen. Baina bien aldetik izan behar da horretarako borondatea. Hala ere, gobernu boto gehien lortu dituen alderdiaren eskuetan egon behar duela uste dut nik.

Andoaingen zer emaitza lortzea espero dituzue?

■ Udal hauteskundeetan botoen %23,4a lortu genuen, baina hauteskunde orokorretan lehia bi alderdien artean oso bereiztuta dago, eta pentsatzekoa da ez-ohiko boto batzuk PPK edo PSOEK beregana ditzakeela.

Zertan oinarrituko da zuen kanpaina?

■ Bakearen eta tolerantziaren aldeko kanpaina izango da.

“Gazteek ez dakite eskuina gobernuan egonda nola bizi den”

Eta zuen gobernu proposamenak?

■ Indarkeriari behingoz amaiera ematea izango da gure helbururik garrantzitsuena. Euskal Herrian bizi dugun indarkeriak Espainia osoan du eragina, eta horrek gobernuaren benetan zaildu egiten du. Bestalde, ongizate gizartearen oinarriak eutsi nahi diegu, eta indartu. Batzuetan jendea ez da konturatzen Estatuak eskaintzen dizkigun oinarritzko gutxieneko zerbitzu horiek eskuinaren eskuetan desagertu

tu egin daitezkeela. Gazteak adibidez, beti bizi izan dira gobernu sozialista baten babesean, eta iruditzen zaie, besterik gabe, denak berdin jarraituko duela.

Indarkeriaren amaiera, nola?

■ Egia esan, galdera hori indarkeriaz jokatzen dutenei egin behar zaie. Beraiek dira indarkeria uzteko ekimena izan behar dutenak.

Zer deritoxozu autodeterminazio eskubi-deari buruz?

■ Behin indarkeria amaitu ondoren, dena da posible, hiritarren gehiengoak erabaki beharko du orduan. Dena den, nik uste dut Autonomi Estatuak ematen dituen baliabideak herri honek bere etorkizuna erabaki dezan nahikoa direla. Ni falta diren transferentzia guztiak Eusko Jaurlaritzaren eskuetan jartzearen aldekoa naiz, baina aurretik eskumen horiek, Euskadin, hiritar guztien gutxieneko beharrak berdintasunez asetzeko gai direla ziurtatu behar da.

Zerk bereizten zaituzte alderdi nazionalistengandik?

■ HB eta gainerako alderdien artean bereiztu behar da lehenengo, alderdi demokratikoen eta indarkeria babesten dutenen artean. Garbi dago, gainerakoan eskuina eta ezkerre ez direla desagertu. Eta praktikan, nik ikusi ahal izan dudangatik EAJ-PNVren eta EArekin politika erak gureak baino kontserbadoreagoak dira. HBrekin aldiz, bai Diputazioan bai Udalen hainbat eta hainbat gaitan bat etortzeko gai izan gara; politika sozialari dagokionez, ezkerreko ikuspegia dugu biok.

Eta PP eta IU-EBrengandik?

■ PP Espainiako eskuinaren ordezkari da. IU-EE bestalde, ez dut uste gu baino ezkertiarra denik. Eskuinari lotuta dagoen ezkerreko alderdia da. Orain arte behintzat horrela jokatu du.

Madrilen euskaldunoi buruz ze irudi daukate?

■ Adibide bat jarriko dizut: legealdi honetan Udalak kargu hartu zueneko irudia Espainiako edozein herritan ikusiko balute, lehendik ere zeukaten irudi txarra, indarkeria irudia, berresten lagunduko luke. Une honetan bakea nahikoa urrutiko dagoela iruditzen zait, belaunaldiko gazteak, aurrekoak baino erradikalagoak dira. ■

Juan Carlos Cano Aristoy

(PP)

Ziur al zaude hauteskundeak irabaziko dituzuela?

■ Praktikan aurrenekoak ez izatea posible bada ere, intelektualki sinestezina iruditzen zait espainiarrek "Felipismoaren" gobernu ustelari agintea berriro ematea. Hori dela eta, pentsatzen dugu gobernatzeko adina boto lortuko ditugula. Hala ere, benetan garaipena lortu arte, ez naiz lasai egongo; orain arte bezala, PSOEek botere faktikoak bere alde erabil ditzake, eta azken momentuan sorpresaren bat eman.

Gobernurako zuen oinarrizko ideiak zeintzuk dira?

■ Espainia mailako proiektu nazionala da gurea, eta aldi berean bertako alderdi bat gara. Euskaldunok nazionalitate bat osatzen dugula onartzen dugu, eta bere ezaugarri guztiak garatzearen aldekoak gara, baina beti ere estatu espainiarraren barne.

Eta gainerako proposamen zehatzak?

■ Doitasunez jokatzeko asmoa daukagu, dauzkagun ondasunak urriak baitira. Ustelkeriaren aurkako egiazko konpromezua daukagu. Zergak murriztuko genituzke. Gastuak murrizten badira, eta gestio egokia egiten bada, posible da.

Langabeziari aurre nola egin?

■ Lan hitzarmena aldarrikatzen ari gara. Neri gaur egun lotsa ematen dit Espainian ongizate gizartean bizi garela esatea, %22ko langabezia izanik. 40 milioi espainiarrentzat lortu behar da ongizate gizartea. Pentsioak, Toledoko hitzarmenean agindu bezala, mantenduko ditugu. Armada profesionalaren aldekoak gara, eta momentuz sei hilabeteko soldadutza ezarriko genuke. Azkenik, terrorismoaren aurka gogor egiteko borondatea daukagu. Espainian gaur egun daukan irudia berrindartuko genuke.

Euskal Herriak ze espero dezake PPren-gandik?

■ Edozein espainiar kezkatzen duten arazoek kezkatzen dute euskalduna: langabezia, droga, terrorismoa... Eusko Jaurlaritzak eginiko inkesten arabera, euskaldunek soberania nazionala ez dute kezkarik nagusia. Euskaldunok gainera, beste arazo larri bat badaukagu: terrorismoa. Horregatik, euskaldunec gainerako espainiarrei eskaintzen zaizkien irtenbide berberak proposatzen dizkiegu, erakunde autonomoen eta zentralaren arteko elkarlanean.

"Edozein espainiar kezkatzen duten oinarrizko arazoek kezkatzen dute euskalduna"

Zerk bereizten zaituzte beste alderdiengandik?

■ Lehenengo eta behin, demokraziaren arabera jokatzeko dugun alderdien eta besteen arteko bereizketa egingo nuke. HBri dagokionez, ez nau ezerk ez bazen ez bereizten; ez daukat harremanik. Bestalde, iruditzen zait mende hasierako mugimendu erradikalek gaur egun lekurik ez dutela. EAJ-PNVrengandik eta EA-renganik helburu nazionalistak eta euskal subiranotasunak bereizten gaituzte. Hala ere, EAJ-PNV eta PP ia anai bikiak gara errealitate sozio-ekonomikoari dagokionez, hautagai multzoa berdintsua da biona. PSOEek eta biok ez dugu horren abiapuntu ezberdinik: gure politika liberalagoa da, eta beraiena berriz, sozialagoa. IU-EE esperimentu hutsa izaten jarraitzen du; ez da benetako alternatiba.

Zer deritzozu autodeterminazio eskubi-deari buruz?

■ Nazioartean onartutako eskubidea da, estatu demokratikoetan berretsia. Autodeterminazioa ordea, ez da bere horretan eskubide bat; Euskal Herriaren independentziari buruz iritzia emateko bitartekoa, baizik. PPri dagokionez, gure proiektua Espainia mailakoa da. Hala ere, nik gustora jasoko nuke herritarren iritzia, ziur nago eta, gehiengoak aurka agertuko litzatekeela. Dena den, autodeterminazioa aldarrikatzen dutenei dagokie eskubide hori eskatzea. Ondoren gehiengoak baietza ematen badu, guk ez ditugu tankeak kalera aterako.

ETArekin negoziatzea zer iruditzen zaizu?

■ Ni arazo guztiak mahai batean eserita, hitz eginez, konpontzearen aldekoa izan naiz beti, edozein arlotan. Baina estatuak bere duintasuna eta legaltasuna mantendu behar du. Horregatik ETAk hiltzeari uzten ez dion bitartean, ez dago zer hitz eginik. ■

Ingeniari industrial. Enpresa zuzendaritzan aditua. "Grupo Cooperativo Mondragón" etxean hamabi urtez aritu da lanean.

Hiru urte egin ditu PP alderdian. Gaur egun Gipuzkoako PPko Ekonomia eta Hazienda batzordeburua da.



Industri maisua. Delineatzailea. Andoingo Etxeberrietako auzo elkartearen eman zituen bizitza publikoan lehenengo urratsak. IU-EEK bere taldera biltzeko proposamena luzatu, eta alderdiaren ideologiarekin bat zetorrenez, udal hauteskundeetako zerrendetan aurkeztea erabaki zuen. Gaur egun udal zinegotzi da eta herriko komiteko kide.



Nicolas Pérez Barbón

(IU-EB)

Zer gertatuko da martxoaren 3an?

■ IUk gora egingo du: aurreko hauteskunde orokorretan %13ra iritsi ginen, oraingo honetan %17ra iritsiko garela uste dut. Bizkaian lortu nahi dugu diputatu bat; Gipuzkoan ezinezkoa izango da. Andoainen posible da emaitzak hobetzea. Estatu mailan, garbi dago PPK irabaziko duela, PSOE pixka bat jaitsi egingo da. PP boterera igotzeak aldaketa handiak ekarriko ditu, oro har.

“Zalantzarik gabe, PPK irabaziko ditu hauteskundeak”

IU-EBk ezker alternatibatzat dauka bere burua.

■ Garbi dago PSOEk ezker ideologiaren oinarritzko irizpideak alde batera utzi dituela, 1982an gobernura iritsi zenetik, eta sozialismoa “felipismo” bihurtu zenetik, azkenean, eskuin politika gitera iritsi delarik. Azken hamairu urteotan babes gutxien duten talde sozialen kaltetan aritu da alderdi sozialista. Bestalde, IU-EEK buruz esan beharra dago, euskal herritar askok oraindik ere estatu mailako IU alderdiaren sukurtsaltzat hartzen gaituztela; aitzitik, IU-EBk badu nortasun propioa, baita soberania politikoa eta juridikoa ere.

Zeintzuk dituzue oinarritzko proposamenak?

■ Euskadiren egoera, arlo ekonomikoan penagarria da: sare industrialaren %45a hondatuta dago: %25ko langabezia daukagu; gazteen artean langabezia %50koa da; %35ekoa emakumeen artean, eta marginazio eta pobrezia hotza handiak daukagu. IU-EBk baditu proposamen zehatzak: lan harreman iraunkorrak ezarri eta langileen etengabeko prestakuntza ziurtatu; Euskadiko Kontseilu Ekonomiko eta Sozialaren bitartez hondamen ekonomikoa geldiarazi eta garapen soziala bultzatu; aniztasunean oinarritutako industri egitasmoak bultzatu; lurraren prezioa merketu eta koste finantzieroak eta energe-

tikoak botere publikoen bitartez kontrolatu; eta euskal administrazio publikoaren erreformarekin “bezereriarri” eta gastu hutsalei amaiera emanez.

Zerk bereizten zaituzte beste alderdien-gandik?

■ Ia denak bereizten gaitu, eta ezer gutxi batzen. Alderdi internazionalista gara; ez euskal nazionalista, ezta espainiar nazionalista ere. EAJ-PNV eskuin alderdia da. EA ez dakigu non kokatu, eta HB ezker alderdia izan arren, eta zenbait ideietan bat etorri arren, indarkeriaren alde daukan jarrerak bereizten gaitu. PP eta PSOErengandik erabat bereiztuta gaude.

Zer diozu autodeterminazio eskubideari buruz?

■ Autodeterminazio eskubidea irmo defendatzen dugu, edozein herriren eskubide ukaezina da. Erreferendum bitartez ezagutu beharko litzateke herri-tarren iritzia. Iparraldearekin harremanak sendotu behar dira. Dena den, ez dut uste une honetan gehiengoa independentziaren aldeko denik. Guri independentziak irtenbideak baino gehiago, arazoak ekarriko dituela iruditzen zaigu. Guk espainiar estatua osatzen duten herrien federazioa proposatzen dugu.

Eta Gernikako Estatutua?

■ Transferentzien erabateko garapena lortu behar dugu, behingoz. Orain arte alderdi batzuen interes partidisten arabera eman baitira transferentziak. Guk uste dugu Estatutuak autogobernurako aukera errealeak eskaintzen dituela. Hala ere, ez zaigu iruditzen Autonomi Estatutua eta autodeterminazio eskubidea bide bateraezin direnik.

ETArekin negoziatorik bai?

■ Ajuria-Eneako Itunean bertan dago jasota auzia konpontzeko irtenbide negoziatua. Talde sozialek eta erakundeek, hala ere, orain arte baino ahalegin handiagoa egin behar dute elkarrizketa bidea bultzatzeko. Dena den, elkarrizketa, su eten eta bake giroan izango da bakarrik, eraginkor.

Zer eskaini dezake zuen alderdiak?

■ Lanaren banaketa; lan orduen murrizketa; zerbitzu publikoen defentsa; garapen sostengatua; herritar txiroekiko elkartasuna; eta justizia soziala. ■

GALDERAK

1 Zuen kanpainaren ardatz nagusiak

2 Zer emaitza espero dituzue?

3 Zuen helburuak eta asmoak Madrilgo legebiltzarrean

4 Zer egin dezake alderdi nazionalista batek Madrilan?

5 Beste alderdiekiko harremanak

6 Zer eskatuko zeniokeite gobernu berriari?


7 Zer espero dezake Euskal Herriak legebiltzar berriarengandik?



“PP boterera igoz gero, orain arte izandako diskurtsoari jarraitzen badio, baketze prozesuaren irtenbideak zaildu egingo dira, eta ongizate estatuaren lorpenak arriskuan jarriko ditu”.


- 1- “Bide tinko eta baketsua” izango da gure lelo nagusia.
- 2- Beste talde abertzale aurrerakoiekin batera, legebiltzar talde bat osatzea da gure helburua, Galizia eta Kataluniako talde abertzale aurrerakoiekin, hain zuzen ere.
- 3- Gure helburuak eta lehentasuneko lanak hauek dira: ongizate estatuaren eta enpleguaren defentsa, bakeratze lanean irtenbideak proposatzea, autogobernuaren eskaera egitea eta Euskadiren presentzia zuzena Europan mantentzea.

- 4- Bide demokratikoetaz eta baketsuetaz baliatuz abertzaletasunaren koherentzia eta tinkotasuna legebiltzarrera eramateko asmoa daukagu. Euskal Herriaren ahotsa estatuko erakundeetara eraman nahi dugu, eta dagozkigun europear erabakietan partehartze zuzena izan. Azken finean, Euskal Herriaren interesak defendatu.
- 5- Gure alderdiaren eta PPren arteko harremani dagokienez, ez dugu puntu amankomunik: alderdi abertzalea eta aurrerakoia gara. PSE-EEri dagokienez, une honetan harreman instituzionala daukagu. Noski, gobernuan eta erakunde ezberdinetan alderdi abertzaleak soilik egotea nahiko genuke, baina hori oraingoz ezinezkoa denez, bestelako akordioa behar da, eta akordio honen ondorioz, erakunde ezberdinetako gobernu egitasmoetan oinarritzen da PSE-EErekin daukagun harremana.
- 6- Gure politika ardatzen alde egitea eskatuko genioke: hau da ongizate estatuaren eta enpleguaren defentsa, indarkeriaren arazoari irtenbideren bat ematen saiatzea, gure autogobernu eskariari erantzutea, eta Euskadiren presentzia Europan ziurtatzea.
- 7- Guk legebiltzar berriarengandik zera nahiko genuke: Euskal Herriak dituen arazoei irtenbidea bilatzea: lehenik eta behin, Euskal Herriko bi elkarte autonomoen autogobernuaren garapena ziurtatuz, hau da Estatuak Euskal Herriari eman zion hitza betez eta oinarritzko zenbait legeen bitartez gure autogobernua murriztu gabe. Bigarren, Euskal Herria bakeratzearen alde orain arte baino gehiago saiatzea espero dugu, ea behingoz gure herrian bakea lortzen dugun.



“PSOEk nahiz PPk irabazita, gauzak berdintsu jarraituko dute, lehia irekita dago. Oinarrian Euskal Herriak ukapen maila berean jarraituko du. Beraz, aldaketarik ez dugu espero, batak edo besteak irabazita. PPk irabaziz gero, inposaketa hori mantentzeko erabiliko duen errepresio maila areagotzea espero daiteke. Hala ere, PSOEren eskuindar politikak zirrikitu gutxi utziko dizkio PPri”.

- 1- Gure kanpaina gogorragoa edo bigunagoa izango den ezin daiteke esan. Beste kanpaina batzuk nola antolatu ditugun ikusita, gure planteamendua ezberdina izango da: ez ditugu mitinak egingo, eta gure iharduera eguneroko lan ildotik ez da bereiztuko. Presoak Euskal Herrira ekimena, Alternatiba Demokratikoaren aurkezpena, gai sozioekonomikoa, cuskara..., horiek izango dira gure lan ardatzak. Laburtuz, independentziaren aldarrikapena ozena eta Estatuaren salaketa zuzena.
- 2- Gure emaitzen irakurketa egiterakoan, esan behar dugu ezker abertzalearen indarren benetako neurketa ez dela hauteskundeetan bakarrik egiten, egunerokoan baizik. Gure oinarri soziala tinko mantenduko dela ziur gaude, estatuari aurre egiteko aukera bakarria Herri Batasuna baita.
- 3- Espainiar legebiltzarraren dinamikak ez du Euskal Herrirako onurarik ekarri; aitzitik, bertatik sortu dira gure herriaren kontrako ekimenik gaiztoenak. Abertzale deitzen diren indarrek Madrildik lortu duten gauza bakarra alderdiaren egoera hobetzea izan da: onura partidistak, alegia. Gure ustez Madrilekiko egin daitekeen gauza bakarra gure eskubideak aitortu daitezkeen presioa egitea da, legebiltzarrean ez guk eta ez beste inork egin ezin dezakeena. Beraz, kanpoan geratuz gure botoak izango dira presio egiteko balio izango duten bakarrak.
- 4- Estatu espainiarrak gure izaera errespetatzeko duen borondate faltarekin, ezer gutxi. Baldintza hauetan han egoteak inposaketa indartzeko besterik ez du balio. Gure ustez borondatea aldarazteko lana hemen egin behar da. Hori lortutakoan, orduan bakarrik izango da posible Estatu eta Euskal Herriaren arteko itun berria.
- 5- Zoritxarrez, PSOE-PPren eta HBren artean bereizten gaituena batzen gaituena baino gehiago da. HBk, beste alderdiek ez bezala, legebiltzarretan eta kanpoan gauza berak defendatzen ditu. Guk Euskal Herriaren eskubidearen aldeko lana eta gure luraren defentsa ditugu oinarrian, ahalmen ekonomikoa berreskuratzeko borrokatzen dugu, nekazaritzaren alde, lurralde antolaketa desorekatzen duten AHT bezalako proiektuen aurka, euskararen berreskurapenaren alde... Beste alderdiek ezingo dute esan hitzetan eta ekintzetan zintzo jokatzeko dutenik.
- 6- HBk Euskal Herriak dituen eskari eta eskubideen errespetua exigitzen jarraituko du; herri honek independentzia eta lurralde batasunaren aukeraz herritarrei galdetzeko aukera eskatuz, hitza herriari eman, hain zuzen ere.
- 7- Gauzak dauden bezala, gutxi espero daiteke. Euskal Herria eta estatuaren artean itun berri bat izenpetu behar da, euskal herritarrei beren etorkizunaz eta bere herriekiko harremanetaz galdetzeko aukera eman behar zaie. Jakina da, klase politikoak egun erakusten duen jarrera itxiak ireki ahal izateko, legebiltzar horrek aukera gutxi emango dituela.



“PP edo PSOE gobernuan egonda, estatu ereduari dagokionez, ez dira gauzak aldatuko. PSOE adinbat alderdi jakobinoa baita PP. Gizarte politikak ahulduko ditu piskanaka-piskanaka PPk, bere programak jasotakoari jarraiki. Pertsona azkar eta aberatsentzat egingo du politika, besteak hor konpon”.

- 1- Euskadin bizi garenon gogo-nahien, asmo-amensten lekuko izan nahiko genuke Madrilgo Diputatuen Kongresuan. Esaterako, autogobernua sendotu, bake bideak zabaldu, lanpostuak sortzeko politikak bideratu, industri ekonomiaren aldeko apostua egin, hezkuntza eta kulturgintza askatasunean garatu eta gizarte justiziazko politika baikor bereizleak egin: euskalgintza, emakumea eta gazteriaren arloa, arrantza eta nekazalgintza.
- 2- Legebiltzar taldea osatzea du gure alderdiak helburu nagusi, hori baita Kongresuan eragile izateko beharrezko tresna. Horretarako, gutxienez, bost diputatu behar dira. Hortik aurrerakoak ongi etorriak izango dira, Euskadiren alde aritzeko garrantzitsuak izango baitira. Ez genuke nahi, inondik ere, PPk gehiago absolutoa izatea, horrek elkarritzetari, adostasun bideei lau urterako ateak itxiko lizkiokelako.
- 3- Gure egitasmo politikoak aurrera ateratzeko ezinbestekoa da legebiltzar taldea izatea. Tresna hori gabe, legebiltzarra politika testimonia-lerako lekua besterik ez da. Autogobernuaren ikuspegitik, 1996-2000 urteetarako legealdiak Gernikako Estatutuaren erabateko betetzea ekarri behar du berarekin, eta horrekin batera 2001. urterako berri behar den Ekonomi Itunaren oinarriak finkatu nahiko genituzke.
- 4- Gure boto emaileen ordezkari izango gara, ondorio guztietarako. EAJ-PNVk -PPk eta PSOEek ez bezala- Estatu nazio-kultur eta hizkuntz antzaren aldeko jarrera du. Europaren eraikuntzari begira, guztiz garrantzizkoa da Madrilgo Kongresuan egitea. Gizarte ereduari begira, PPren eskuin-eskuineko politikaren aurrean, eta PSOEren interbentzionismo jarreraren aurrean, gizarte justizia eta bereizketa politiko baikorrak aurrera eramango dituzten alderdien jarrerek debeteak eta irtenbideak aberastu egiten dituzte, ez bairik gabe.
- 5- PP alderdi kontserbadorea da, eskuin-eskuinekoa, nola bere gizarte ereduari, hala bere estatu antolaketari dagokionez. EAJ-PNV alderdi kristaudemokrata da gizartegintzan, eta abertzalea Euskadiren nazio eraikuntzari begiratu. PSOEren egungo jarrera politikoak sozialdemokratikak dira. PPk eta EAJ-PNVk industriagintzan zein ekonomi arlotan izan ohi dituzte antzarik handienak, merkatu ekonomia baitute oinarritzat. Gizarte justizia eta giza eskubideen arlotan dituzte PPk eta EAJ-PNVk ezberdintasunik handienak. Bereziki bi arlo hauetan dute PSOEek eta EAJ-PNVk eduki gune amankomunka. PSOE, IU eta EAJ-PNVren arteko ezadostasuna aginte politikan izan beharreko gizarte interbentzionismoan datza.
- 6- Gernikako Estatutua legealdi berriaren hasieran betetzea, Eusko legebiltzarren gehiengoak onartutako edukiak betez. Euskadiren bake bideratzea helburu politiko gisa hartzea eta ekimen zehatzak aurkeztea gizarte normalizaziora iristeko. Lana sortzeko politikei lehentasuna ematea, gazteen lan egoerari irtenbide ausartak eta egonkorak eskainiz.
- 7- Gure herriak dituen arazo nagusien irtenbidea eskainiko dien legebiltzarra. Legebiltzarra herri ordezkari osatzen da, eta beraz, espero daitekeena zuzen-zuzenean lotuta dago herritarrek egiten duten aukerarekin. Nolako aukera, halako esperantza.

Zer espero dezake Euskal Herriak legebiltzar berriarengandik?



Patxi Baztarrika Andoain

Ez dakit martxoaren 3an aukeratuko ditugun Gorteen eskutik zer etorriko zaigun euskaldunoi; jakin dakidana da han egotea, indartsu gainera,

interesatzen zaigula, hango erabakiek gure bizimoduarengan eragiten baitute.

Badakit badela besterik pentsatzen duenik. Kuriosoa behintzat bada: denok ere normalizat eman ohi dugu europarrak garela. European gaude, euskaldun izateari utzi gabe. Baina, kontxo!, onartu beharko dugu horratio, Europa baino gertuxeago dugula Espainia. Eta nik, abertzale izaki, abertzale izateko ez daukat Espainiarekiko "anti" izan beharrik. Ez dut nahi. Aitzitik, hain zuzen abertzale naizenez, euskal gizarte honentzako pisuzko arazoak eztabaidatu eta erabakiko diren lekuan han behar dugula derizkiot.

Baliteke inork gehiago absoluturik ez izatea. Hala balitz, Espainiako etorkizuneko Gobernu zentralaren politikak zentralismo gutiago eta autonomi izpiritu gehiago edukitzeko aukera egokia suerta daitekeelakoan nago.

Bakea, enplegua, autogobernua: horra gure erronketariko hirukote nagusia. Bakegintza Madrilen baino askoz gehiago, nahitaez, hemen behar dugu landu. Arazoa gurea baita. Konponbide zaila du, ez bairik gabe, gizartean gero eta etendura handiagoa baitago eta indarkeriaz baliatzen direnek bere horretan jarraitu nahi dutela baitirudi, geure arteko enfrentamendua gehituz. Por zierto, Mujika ere, gizakia izateaz gain -beraz, eskubideduna- hemengoa zen, euskal herritarra.

Desberdintasunen kontrako borrokan enplegua bultzatzea da lehen egitekoa. Autogobernua sendotzea, berriz, eskubidea izateaz gain, hobeto bizitzeko behar dugun zerbait da. Hori guztiaz bada zereginik Madrid aldean, enplegu-politiken erabakiguneetako bat Madrilgo Gorteak baitira, eta autogobernuari dagokionez, berriz, ez ote litzateke hurrengo legegintzaldian, behingoz, Gernikako Estatutuaren garapena osorik amaitu beharko? Hori gutxi ez eta, gainera, 2000. urtearen bueltan Kontzertu Ekonomikoa -hori ez da broma!- berritu behar da, eta horretarako aurrelanei martxoaren 3tik aurrerako legegintzaldian ekingo zaie.



Jose Luis Alvarez Enparantza "Txillardegi" Billabona-Amasa

Legebiltzarrak espainiar legetasunaren barruan jokatutako behar du, alegia Konstituzioaren barruan. Konstituzioaren arabera, "espainiar herria" da eskubide-sujeto bakarra. Euskal Herriari ez dagokio, espainiar eskualde bati uzten zaion azpi-eskubidea besterik. Agintea, hitz batez, "espainiar herri" horri dagokio; eta nazio proiektu bakarra Espainia da.

Auto-Determinazio eskubiderik ez dago Konstituzioan; Espainia Estatuaren barruan, herri bakarra baitago: espainiarra. Hain zuzen, Estatu-muga horiek ikutu ezinak dira. Eta inoiz arriskuan gertatzen baldin badira, espainiar indar armatu guztiei dagokie (lehorrekoei, itsasokoei eta airekoei) armen indarrez batasun horri eustea (8.1 Art.)

Hizkuntzaren alorrean, bide beretik, gaztelania da "espainiar orok" (euskaldunok barne) jakin behar dugun hizkuntza bakarra (3.1 Art.). Euskara inori inposatzea (are Baskongadetan edo Nafarroan ere), erdaldunak "diskriminatzea" da; inor ez baitago euskara jakitera behartuta.

Marko horretan ezer gutxi espero dezake abertzaleak. Are gutxiago hemengo alderdi errejionalistak, PNVren gidaritzapean, indar espanyolista eta anti-euskaldunekin erabat loturik, Estatuaren defendatzaile sutsu bihurtu, eta abertzaletasunarekiko etsaitu direnean.

Hitz batez: marko horretan egonda, Euskal Herriak jai dauka.

Amasa

LIZARRAGA BASERRIKO ESNEZALEAK


"Hemengo esnearen kalitatea Europako esnearena bezain ona da"

Amasako Lizarraga baserriko Bixente Zurriaran eta Mari Karmen Iturbe hogeita hamar urte daramatzate esnea biltzen eta saltzen. Gaur egun biltzen dituzten litrorik gehientsuenak Iparlati saltzen dizkiote, gainerakoa etxeakoandreak Billabonan hirurogeiren bat etxetan banatzen du goizero atez ate. Lizarragan orain dela urte batzuk berritu zuten ikuilua eta poliki-poliki handitu dute ekoizpena. Gaur egun 24 esne-behi dauzkate.

400 litro inguru jezten dituzte egunero. Kalean saltzeko behar dutena izan ezik, gainerakoa Iparlati saltzen diote. Goizean goiz behiak automatikoki jetzi eta ontzi-hozkailuan bildu ondoren ordea, Iparlateko kamioi zisternak ez dira Lizarragaraino igotzen. Izan ere, baserría ez dago batere gertu, eta gainera inguru horretan esnea biltzeko beste baserririk ere ia ez dago. Beraz, Bixentek eta Mari Karmenek kotxez jaitsi behar izaten dituzte marmitak eliza ondora.

"Beherapenak"

Iparlateko teknikariak hilean lauzpabost aldiz joaten dira baserrietara ikuiluak eta esnea ikuskatzera.



Hala ere, Bixentek dioenez, ordaintzeko orduan beti izaten omen dira "beherapenak", esnean aurkitzen dituzten zorioneko patologiak direla eta. Nonbait, kontrola, higiene neurriak, eta zainketa lanak primerakoak izan arren, beti izaten da esnearen kalitatea, eta ondorioz prezioa jaitsiarazten duen arazoirik. Horrelakoetan, baserritarrak, normalean zer esan ez dakicela gelditu ohi da, eta esandakoari men egitea besterik ez zaio gertzen. Halako arazoak dituztenean, baserritarrak elkartu ohi diren galdetu diogu Bixenteri. Baina, antza, baserritarrak horrelako gaiet buruz hitz egiteko elkartzea uste baino zailagoa da.

"Gaur egun kuotak direla eta, ez digute presiorik egiten"

Espainia Europako Komunitatearen partaide bihurtu zenean, baserritar bakoitzak ekoiztu behar zituen esne kuota zela eta, sortu ziren eztabaidak, kuotak oso txikiak baitziren, baserritarrak bizi irauteko nahikoa ez. Gaur egun baserritarrek nahi adina ekoizten dute, eta Iparlatek guztia biltzeko arazorik ez dauka. Batzuetan, bertako baserritarren esnearekin



Tresneria moderna ezinbestekoa

nahikoa ez duenean, Santander edo Frantzia aldera jotzen du esne bila, nahiz eta adituen esanetan, hango esneak horrenbeste indarririk ez izan. *"Guri esnerik onena ekoizteko agintu-dio Bixentek-, baina falta dutenean kanpotik ekartzeko arazorik ez daukate"*.

Bestalde, gaur egun esne ekoizpena legeak mugatzen du, eta esnea ekoizten hasi nahi izanez gero, lehendik ikuilua daukanari baino ez zaio uzten. Behiak kendu nahi dituenak berri, dirulaguntzaren batzuk jasotzen ditu. Behiak kendu eta dirurik kobratzen ez duenak bakarrik, dauka aurrerago esnea berriro ekoizten hasiteko eskubidea. Gaur egun, esne ekoizpenak behar bezalako etekinak eman ditzan tresneria agokiaz gain, berrogeiren bat buru edukitzea komenigarria dela esan digute Lizarragan.

Gure baserrietako esne-behiak oso onak dira, Alemaniatic ekarritakoak normalean. Ematen duten esnearen kalitatea Europakoa bezain ona dela esan digu Bixentek.

ETXE ARROTZ BATEKO ETXEKOANDREAK

Emakume askok lan egiteko duten aukera bakarra da

Goizeko bederatziak eta hamar. Billabona-Zizurkil eta Andoaingo tren geltokietan emakume asko daude Donostiara doan trenaren zain. Boltsa esku batean eta trenaren bonoa bestean dutela, berea ez den etxe bateko lanak egitera doaz. Gero eta emakume gehiago dira etxe garbitzaile gisa edota neskame moduan, egunero, lan egiten dutenak. Senarrak langabezian gelditu, eta etxekeo diru sarrerak gehitzeko joaten dira batzuk; beste lanik egiten ez dakitelako beste batzuk; beharrak eraginda joaten dira ordea, guztiak.

Trenean topatu ditugun emakume gehienak, hogeita hamar eta berrogeita hamar urte bitartekoak dira. Trena ohiko ordua baino beranduago etorri dela dute hizpide. Donostiako geltokian jaitsi dira gehienak. Garbiñe etxe garbitzailea da. Mari Jose neskamea. Donostiara joaten dira biak lanera, eta euren lanbideaz hitz egiteko bildu ditugu.

Beste ezer egiteko aukerarik ez

Mari Josek hogeita bi urte ditu eta hiru urte daramatza Donostiako etxe batean lanean. Etxeko lanak egin, bazkaria jarri, eta bi haur zaintzen ditu; hamaika ordu egiten ditu lanean egunero. Oinarritzko ikasketak bukatu arte ikasi zuen, eta nahiz eta zerbitzari ikastaro bat ere egin zuen. *"nik ez daukat beste inon lan egiteko*

aukerarik, etxeren batean ez bada" dio.

Garbiñek berrogei urte ditu eta bereiztuta dago. Bi seme-alaben ama da, eta honek ere ez du oinarritzko ikasketak baino gehiago ikasi. Donostiako etxe batera joaten da astean hiru aldiz, eta herriko beste batera berriz, astean behin. Etxea garbitu eta arropa lisatzen du, *"egun osoa gautza bera egiten igarotzen dut: goizean, kanpoan eta arratsaldean, nere etxean"*. Mari Josek 65.000 pezeta irabazten ditu eta Garbiñek berriz, 50.000 pezeta, gutxi gorabehera. Neska gazteei gutxiago ordaintzen diete, eta askotan, soldata bajuko lanak hartu behar izaten dituzte. Neska asko daude diru gutxiren truke lan egingo luketenak: orduko 200 pezetaren truke edota orduko 100 pezetatan ari dira asko lanean.

Etxeko nagusiei buruz galde-tzean, maniatiko hutsak direla erantzun digute: *"Garbia berriro ere garbitu beharra izaten dugu askotan"*. Mari Josek bere nagusien kasketaldiak jasan behar izaten dituela salatu digu, *"ezer ez naizela sentiarazten didate"*. Zerbait eta diru gehiago eduki, orduan eta gutxiago ordaintzen dutela gaineratu digu.

***"Ezer ez naizela
sentiarazten didate
askotan"***

Besteen haurrak hezitzen

Mari Josek, goizeko zortziak eta hamarretan hartzen du autobusa, eta bederatzieta sartzen da lanera. Goizean haurrei gosaria eman, etxe osoa garbitu, eta bazkaria



Trapua eskuan dutela egun osoa



Bazkaria prestatu, garbitu, lisatu, umeak zaindu...

prestatzen du. Eguerdi bazkaria zerbitzatzen die nagusiei, eta sukaldea garbitu ondoren, arropa lisatu eta haurrekin paseatzera iristen da arratsaldean. Iluntzean haurrei aforia eman, eta askotan, lotan uzten ditu bera etxera joan aurretik. Jaio zirenetik ari da zaintzen egun hiru urte dituen neskatila eta urtebete inguru duen beste neskatia: *"Nere alabak izango balira bezala zaintzen ditut: ni ari naiz haur horiek bazten eta bezitzen"*. Gurasoek, euren alabak egunean pare bat orduz bakarrik ikusten dituzte, eta haurrek, askotan, kasu gehiago egiten diote Mari Joseri bere gurasoei baino.

"Askotan haurrekiko maitasunagatik ez dugu lana uzten"

Haurrak zirela eta, hasi ziren Mari Jose eta etxeko nagusien arteko harremanak okertzen: *"Ez zate gustatzen haurrak alde batetik bestera gauzak nabasten ibiltzea. Gauzak bere lekuan ez badaude, neri botatzen didate errua"*. Asegurua nagusiei salaketa ez jartzeagatik egin zioten, *"ez ziren fidatzen"*. Mari Joseren asmoa etxe horretatik irten eta etxe

garbitzaile gisa lan egitea da, *"aukera izanez gero, ordu gutxiago eta lan gutxiago egingo nuke"*.

Diruz ordaintzen ez den lana

Garbiñek goizeko bederatzitik erdietatik eguerdiko ordubatak arte egiten du lan, *"askotan ordu erdi gehiago egiten dut lan"*, gaineratu digu. Etxe handi bat garbitu behar du goitik behera, eta guztia garbitu arte, ez du lana amaitzen. Bestalde, arropa lisatzen du, eta askotan, ez dio dena ondo egiteko astirik ematen. *"Nagusiak nahikoa jatorrak dira, nabiz eta askotan ez duten baloratzen egiten dudana"*. Astean behin joaten den etxean berriz, garbiketa orokorra egiten du, eta harreman onak ditu bertako nagusiekin.

"Gaizki tratatzen ez gaituzten bitartean gustora egoten gara; baina ez lana gustoko dugulako"

Ez dauka segurorik, eta bidaiak berak ordaindu behar izaten ditu. Garbiñek ez du bere lana gustoko: *"Badirudi, lanbide bat baino, gehiago nagusiei egiten diezun me-*

selea dela". Baina ikasi ez dutenek eta beharra duten emakumeek egin dezaketen lan bakarra dela gaineratu digu. *"Gogorrena, goizetik gaueraino trapua eskuan duztula egotea eta jendearekin barrerarik ez izatea da: nik ez daukat lanbiderik"*. Horrek, frustrazio ugari sortzen dituela adierazi digu.

Aurretik lanean izan dituzten neskekin parekatzen dituzte askotan, eta zailena, norberea ez den etxea bertako nagusiek nahi duten bezala garbitzea dela esan digu Garbiñek. Arratsaldeetarako lanen bat bilatzea gustatu litzaioke eta zerbait ikasteko asmoa ere badu: *"Ea aurten euskaltegira joaten hasten naizen!"*. Etxe garbitzaile askori lana gutxitu zaiela gaineratu digu, *"nagusiak ere lanabezian gelditzen ari baitira"*. Azkenik, gazteei eta batez ere neskei, ikasten jarraitzeko aukera badute, ikasteko esan nahi die, *"etorkizun beltza dugu ikasi ez dugunok, nabiz eta ikasi duten askok ere zorte handirik ez izan"*. ■



Andoain

IRUDI BATEK MILA HITZ BAINO GEHIAGO BALIO DU

**Euskadiko Filmatetikako Mikel Arregi juntakide ohiarekin
solasean**

Euskadiko Filmatetgia Donostian bertan dago, Antxo Jakituna hiribidean. Interes handiko erakundea izan arren, zinema mundutik at dagoen herritar arruntak ez du normalean ezagutzen. AIURRIk Andoaingo Mikel Arregi Aranbururekin, filmatetikako juntakide ohi eta idazkari izandakoarekin, hitz egin du filмотeka zer den adierazi eta herritarrei gerturatu asmoz. Euskadiko Filmotekak helburu garbia dauka: iruditan gordetako Euskal Herriko memoria historiako bildu eta gorde.



Mikel Arregi filmotekako juntakide eta idazkari ohi

- Ze izaera du eta noiz sortu zen filmatetgia?

- Irabazirik gabeko erakunde kultural pribatua da. Hala ere, zerbitzu publikoa eskaintzeko borondatea dauka, eta %90a Eusko Jaurlaritzak eta Diputazioak finantzatzen dute. 1978. urteko maiatzaren lehenean sortu zen, eta gaur egun jendeaurrera eskaintzen duen zerbitzuaz gain, bainbat eta bainbat ekitalditan hartzen du parte: Donostiako zinemaldia, Gasteizko Euskal Zinemari buruzko saiota, Bilboko laburmetraia jaialdia eta abar. Euskadiko Filmatetgia Espai-

niako autonomien artean lehenengo da, gainera.

- Ze egiteko dauka filmatetikak?

- Iruditan gordetako Euskal Herriko memoria historikoa bildu gorde eta ezagutzera ematea, baina zuzen ere, Alde batetik, ikerlari eta zinema egile ugari birbiltzen dira filmatetikara; bestetik, tarteka guk erakusten dugun materiala jendeak ezagutu dezan.

- Ze irudi jasotzen dituzue?

- Fikziozko luzemetraia eta laburmetraiak, dokumentu historikoak, eta baita irudi pribatuak

ere. Oro bar, Euskal Herrian, Euskal Herriari buruz edota euskaldunek, baita mundu zabalean ere, egin dituzten irudiak. Azken finean, etxeko irudiak ere material historiko izan obi dira. Bertan ezagutu daitezke, adibidez, garaiko jantziak, etxeak, giroa eta abar. Horregatik dei berezia egiten diegu etengabe etxean horrelako irudiak izan ditzakeen edonori. Jabeari originalaren kopia egiten zaio bideoan, eta ez dauka zertan jabetza eskubiderik galdu beharrik.

Mundu zabaleko irudi bitxiak ere aurki daitezke filmatetgian

- Fikziozko irudiei dagokienez, noizkoak dituzue filmerik zaharrenak?

- Guztira 700 izenburu baino gehiago dauzkagu. Hasierakoan artean 1917ko Jose Luis de Togoresen "El golfo" filmearen irudiak dauzkagu. 1924ko Telesforo Gil del Espinarren "Eduarne, modestilla de Bilbao" edota 1928ko Azkona anaien "El mayorazgo de Basterretxea" aipatuko nituzke. Iparraldean egintako soinuizko lehen filmea ere gordeta daukagu: "Aux pays des Basques".

- Eta agiri historikoak?

- Hauek dira bildu ditugun izenburuetako batzuk: "Recibimiento a Paulino Uzkudun en San Sebastian" (1926), "Becerrada de Euskal Billeira" (1928), "Apuesta de Keixeta contra Igartza en Azpeitia" (1928), "Balneario de Cestona" (1928), "Primer Aberri Eguna en Bilbao"



700 titulu baino geiago zineman

(1932), "Detención de los alcaldes nacionalistas en Donostia" (1934), "Visita de Niceto Alcalá Zamora a Oñate" (1934) eta abar. Tartean badira 1920 urte inguruko Donostiako irudiak, gerra garaiko Gernikako bonbardaketari buruzko irudi zimaragarriak, edota J.A. Agirre lehendakariaren ehorzketari buruzkoak. Aipatzekoa da Andoaingo Plazaolako trenari buruzko irudiak ere badaudela. Hala ere, interes handiko beste asko geratu zaizkiz aipatu gabe.

Gasteiztar aintzindari baten erliebiko lehenengo irudiak

- **Altxor preziturik ere izango duzue?**

- Teofilo Minguenza gasteiztarrek 30ko hamarkada basieran erliebean egindako lehenengo irudiak dauzkagu. Arlo horretan aintzindari izan zen gasteiztarra. Hogei urte berandutago ekin zioten lan berberari amerikarrek.

- **Askotan materiala berritu egin beharko duzue.**

- Bai, etxe askotan pelikula zaborrak egon arren, ziur aski, ikusteko tresneria egokirik ez dute izango. Horregatik, filmategira ekarri-

gero, materiala berreskura daiteke. Bestalde, etxean pelikula bobinak edukitzea arriskutsu izan obi da, materialak erraz bartzan baitu sua. Filmategian sutik eta bezetasunetik ongi gordeta egon obi dira. Gaur egun, adibidez, Andoaingo Laborde lantegian bildutako bainbat pelikula ari gara aztertzen eta berreskuratzen.

- **Gaur egun ze material biltzen dituzue?**

- Egiten den filme bakoitzeko produktoreak beti ematen digu kopia bat, bala nola Eusko Jaurlaritzak, dirulaguntza emandako filmeen beste kopia bat. Gaur egun, gainera, filmategia laburmetraiak ikusteko lekuri aproposena da. Azkenik, ETB bere materiala birziklatu aurretik beti uzten dio filmategiari, intereseko ezer aurkitu eta jasotzeko aukera emanez. Bestalde, munduko filmategi askorekin dauzkagu barremanak eta bitzarrenak irudiak elkar trukatzeko. Azken finean, munduko irudirik bitxiak biltzen ere saiatzen gara.

- **Inork filmategiko irudirik nahi izango batu?**

- Pelikulak bertan ikus daitezke, ez originak: bideoan eginiko kopia batzuk. Kopiaren bat atera nahi izanez gero, eta irudien jabetza filmotekak badauka, kobratu egiten da, eta jabea besteren bat bada, bari eskatu behar zaio baitmena. Ateak dena den, ikerlari, profesional, zi-

nema egile eta berritar orori dau-
de irekita.

Andoaingo Laborde lantegiko irudiak aztertzen eta berreskuratzen ari dira

- **Euskarazko edota euskaldunek eginiko zinemaren historia laburbilduko zeniguke?**

- Gerra aurretik zinema mugimendu garrantzitsua izan zen. Nafarroa, Euzkadi Herria, eta bertako zinema egileek mugimendu aurrerakoietan hartu zuten parte: bera hor, adibidez, Iparraldeko D'Abbadie D'Arrats: Hollywood-en egin zuen Charles Chaplinekin "La quimera del oro" filmean lan. Ondoren beste sei filme inguru egin zituen. Dena den, euskarazko zinemari buruzko historia interesatzen zaiotzari J.M. Tuduriren "El cine y los vascos" liburua gomendatuko nioke. Gerra garaian, jakina da, ilunpean egon zela euskal zinema, beste kultur adierazpen guztiak bezala. 60ko hamarkadan Nestor Basterretxean "Amaluz" filmearekin eman zitzaion sasoi berri bati basiera. Eta jarraian Eusko Jaurlaritzaren sorrerak zinema ekoizpena lagundu eta indartu egin zuen.

A

MAIA
GIRRE
ZPIAZU

MEDIKU
OSTEOPATA

•LUNBALGIAK •ARTROSIAK
•GIHARRETAKO MINAK ETA ABAR...

KALE Nagusia, 7 - 1. esk. ☎ 59 40 02
20140 ANDOAIN



JOSEBA

Alzariak

•daukagu filmak, liburuak, 35mm filmak
ANDOAIN

ZIZURKIL

BOLEIBOL TALDEA INDARTSU

Jose Mari Martín: "Herritarren laguntza behar-beharrezkoa dugu"

Duela bi urte osatu zuten Danena-Otaño boleibol taldea, eta lehenengo urtean, udaberriko txapelketako bigarren postua lortu zuen kadete mailako ekipoak. Gaur egun, zazpi neska daude kadete mailako taldean, eta beste hamalau neskek infan-

til mailako taldean jokatzen dute. Astean hiru egunetan entrenatzen dute, eta larunbatero jokatzen dituzte eskola arteko partiduak. Aurten Gipuzkoako txapelketan hartuko dute parte, eta emaitza onak lortzea espero dute.



Jokalari berriak behar dituzte taldean

Gurutze Irastorzak eta Isabel Cruzek entrena-tzen dituzte kadeteak eta esan digutenez, en-trenatzaileerik gabe gelditu zirelako hasi ziren kadeteak entrenatzen. Jose Mari Martinek entrena-menduak prestatzen laguntzen die: kirolarien gorpu-tza nola landu eta ze teknika erabili azaltzen die. *"Lan asko egiten ari dira bi neska hauek eta kadete mailako taldea ona izatea lortu dute bi urtetan"* adierazi digu Martinek entrenatzaileei buruz. Infantilen taldea ere osatu dute, eta azken hauek Susana Carreterok eta Dori Parronek entrenatzen dituzte.

Boleibol talde ugari dagoela esan digute, eta Asteasun ere bat badela. Jubenil mailan jokatzen dute azken hauek, eta Zizurkilen maila bereko taldea sor-


tu litekeela esan digu Jose Marik. *"anikerak behintzat badaude"*. Donostiako boleibol taldeak dira onenak eta nahiz eta zenbait talderekin harremanak nahikoa txarrak izan, *"orokorrean giro ona dugu talde ezberdinen artean"* adierazi dute Gurutze eta Isak. Dirulaguntzarik ez omen dute jasotzen eta entrenatzeko baliabideak eta kamisetak, Otaño ikastetxeak ematen dizkie.

Taldeko lana

Astean hiru aldiz entrenatzen dute, eta bi ordu terdiko saioak egiten dituzte entrenatzaileen esanetan: *"Astelehenetan, zangoak lantzeko eta gogortzeko entrenamentua egiten dugu; asteazkenetan berriaz, alterofilia piska bat egiten dugu besoak indar-*

tzeko; ostiralean, teknika lantze-ko, baloiarekin ibil-tzen gara". Otaño ikastetxeko frontoian entrenatzen dute, eta instalakuntzak onak diren arren, curia egitean boleibol pista osoa bustitzen zaie, "frontoiaren albo bat estaliz gero arazoa konponduko litzateke".

"Buruaren, zangoen eta besoen arteko koordinazio ona lortzea da gakoa"



Gogor entrenatzen dute neskek

Boleibol saio bakoitzak, bost set baino gutxiago ditu: "Hamabost tanto ditu set bakoitzak eta hiru set irabazi behar dira garaile izateko; minutu asko igaro daitezke partidua amaitzerako". Baloia hiru aldiz bakarrik uki daiteke, eta normalean, azkeneko ukituan bidaltzen zaie beste taldekoei: "Lehenengo ukituan, baloia bartu egiten da; bigarrenetan, baloia ego-ki ezartzen, eta azken golpean, baloia sarearen beste aldera bidal-tzen da". Sei lagunek jokatzen dute partidu bakoitzean: bi atzean, hiru aurrean eta bat erdian. Aurkako taldeak baloia berreskuratzen badu, bakoitzak bere kokagunea utzi eta ezkerretara dagoen lagunaren postua hartzen du.

Herritarren laguntzaren behar

Izan duten eta egun duten arazorik nagusiena, jendearen laguntza txikia da: "Herritar eta guraso gutxi etortzen dira partiduak ikustera, instalakuntza eskasak ditugu, eta gainera, kritika ugari jasotzen ditugu".

"Futbola ez den kirola baztertuta dago; are gehiago neskek jokatzen badute"

Jose Mari Martinen esanetan, kadete mailako ekipoa egoera onean dago baina laguntza behar du aurrera jarraitzeko. Aurten, adina dela eta, lau neskek kadete mailako taldea utziko dute, eta neska gehiago behar dituzte jarraitu ahal izateko.

Kirola egiten duten lagunak bat direla esan digute, "nahiz eta txapelketak irabazteak kezkatzen gaituen". Partiduak irabazteak nahiz jokatzeak ilusio handia egiten die, eta aipatzekoa da, herriko neska bat Lasarteko jubenetako taldean ari dela jokatzen.

TAXI ZIZURKIL

Pello Ezeiza

- Taxi zerbitzu orokorra
- Ezizdu fisikoentzat ere moldatua

Tel. 69 08 23 - Tel. mugikorra - 908 - 57 59 00

SAGARDOJEGIA JATEX/EA

URRITZA

7. Area - Poligono Industrial (Behe solairua)
20.150 ADUNA ☎ 69 33 96
(LEHEN PAGAMUNOKOAK)

- Urte osoan zabalik
- Eguneko menua

BEREZITASUNAK
Makailoa pil-pilean
Makailoa frijitua eta
Txuleta ederrak

KIROLETARAKO BEHAR DEN GUZTIA

KIROLAK EDURNE

Kaletxiki, 6 - ☎ 59 19 58

ANDOAIN

ZUBi

AUTO ESKOLA

Ernio bidea, 2 - ☎ 69 06 93 - ZIZURKIL

BILLABONAKO MUSIKA BANDA. 1920-1930



1895koa dugu musika bandari buruzko lehenengo informazioa, txaranga bat antolatu nahi eta musikatresnak erosteko herritarrek dirubillketa egin zutenekoa. Urteetan, ia beti, izan zituen musika bandak arazo ekonomikoak, Udalari behin eta berriz eskatzen baitzion pagak handitzeko. Arrazoi horregatik dimititu eta desegin zen banda 1919. urtean. Aurreko urtean ere Udalak Adunara jotzera joaten ez uzteagatik desegin zen banda.

1930ean eztabaida eta arazo berberak berzpiztu ziren. 1931an lortu zuten musikariek soldata pixka bat igotzea. 1931ean, beste behin, Segundo Aranburu bandako zuzendari zela, desegin zuen Udalak musika banda, eta osatu zen "Banda Guria" zelakoa. Ziur aski, arrazoi politikoak izan ziren tartean.

1942an Guria banda elkarte artistiko gisa eratu zen. Urtebete lehenago soldata igoera eskariak ere

izan ziren, musikari gutxiago geratzen baitziren herrian Gerra Zibilaren ondoren, eta geratzen zirenek besteen lana ere egin behar omen zuten. 1962an desegin zen behin-betiko banda, eta handik aurrera Udala orkestina bat kontratatzen hasi zen kaleak jai egunetan girotzeko.

Hona hemen urtez urte bandako zuzendariak: 1901: Luis Mendia, Tomas Arrillagak jarraitutu zion 1919ra arte; 1920: Miguel Martínez; 1922: Luis Otxarritxena; 1931: Segundo Aranburu; 1951: Victoriano Zapirain; 1956: Cruz Uzardiaga.

Argazkian agertzen diren musikariek, guztiek claramate txapel berdea, arautegiak aginduta. Astean bi aldiz huts egin gabe egin behar izaten zituzten entseiuak, "musikariek gauko hamarretan lanera sartu behar bazuten ere", zion araudiak.


Informazio emailer:

Jose Luis Larretxea, Ernio Bebeko artxibaria

**PATXINE
JATETXEA**



GURE BEREZITASUNA: EUSKAL
SUKALDARITZA ETA ETXeko POSTREAK
Errementari, 1 - ☎ 69 10 25 - ASTEASU



Zabala
Ordukari Bitxitegia

Kale Nagusia, 14 - ☎ 59 37 45 - ANDOAIN
Gudari enparantza - ☎ 33 23 41 - HERNANI

Angel Campos "Andoingo Errealaren jarraitzaileak" taldeko lehendakaria



- **Zenbat lagunek osatzen duzue taldea?**
- 20 lagunek.

- **Eta nolatan bururatu zitzaizuen ideia?**
- Errealak aurreneko atzerritarrek kontratatatu zituenen sekulako eztabaidak izan ziren kalean. Lagun taldea tabernan bitz egiten ari gineela, atzerritarrek kontratatatzea, behar izanez gero, ideia ona iruditzen zitzaigula esaten ari ginen, eta borrela sortu zen "Peña Aldrige". Arratsaldean pentsatu eta ETBn gaueko albistegian eman zuten albistea. Orain dela sei urte inguru eratu genuen taldea.

- **Eta gero "Peña Kodro" izena bartu zenuten.**
- Bai. Aldrige joan egin zen eta aurrelari serbiar berria kontratatatu zuen Errealak, eta peña-k bere izena bartu zuen. Kodroekin izan genuen esperientzia gainera, oso berezia izan zen. Jaioterriatik etorri eta biruz-palau bilabetetara egin zuen jokoa larria obian gerak eztanda. Handik gutxira jokalaritaren anaia etorri zen. Eta Udaleran, Gobernu Zibilera eta beste erakunde batzuetara joz, bertan geratzeko beharrezko zituen agiriak egitea lortu genuen. Lan kontratuen bat behar zuen borretarako. Eta Euskalduna futbol taldeak kontratua egiteko konpromezua bartu zuen. Baina, lesioa izan zuen handik gutxira, eta ezin izan zen kontratua gauzatu. Bartzelonak Meho Kodro kontratu izanaren ondorioz, azkenean, anaia ere Bartzelonara joan zen, eta gaur egun Caixan egiten du lan administrari gisa.

- **Eta Gica Craiaveanu-kin jarraitu duzue.**
- Bai. Errealak berak proposatu zigun Gica Craiaveanu erremuntarri peña bat egitea. Baina orain "Andoingo Errealaren jarraitzaileak" deitzen gara.

- **Zer moduz konpontzen zarete Gicarekin?**
- Izugarria da. Hilarbetean behin egiten dugu Errekabururik afaria, ibilaldiak ere maiz egiten ditugu, eta hala ere, gutxi iruditzen zaio. Egumero nabiko luke gurekin egon. Oso pertsona bizia eta irekia da.

- **Bertakoak izan arren, aurrelarietara peña-k egiten jarraituko al duzue?**

- Bai, jakina. Hala ere, kontuan hartu behar da kanpotarra izateak aukera gehiago ematen digula gure egitekoa betetzeko. Azken finean, peña batek duen funtzioa hau da: jokalaria abalik eta azkarren gure artean integratzen laguntzea.

PERTSONAIA EZKUTUA

Tolosako Kike Amunarriz txiste kontalaria eta "Txiskola" telebista saioko aurkezlea zen azkenengo aleotako pertsonaia ezkutua.



Irabazlea **andoaindarra** dugu oraingo honetan: **Leire Olaetxea**. 13 urte dauzka. La Salle-Berrozpe ikastetxean ari da zortzigarren maila ikasten, eta esan digunez oso futbolzalea da. Errealaren jarraitzailea hain zuzen ere. Pertsonaia ezkutua nor zen asmatzea erraza baino errazagoa gertatu zaiola esan digu.



Sari bikaina jaso du **Zirauna etxe**koen eskutik: **Euskadiko futbol selekzio**ko prakak eta **kamiseta**. Zalantzarik gabe, jantzi eta baloia hartuta, futbol saio txoreen bat egitera animatuko dela uste dugu.

IKUSENTZUNEZKOAK

BILLABONA

Otsailak 29: "Nieves y avalanchas: prevención y salvamento". Hizlaria: Antton Burcio. Gurea zinema aretoan 19.30etan.

Martxoak 6: "Argelia". Egilea: Jabier Albistur. Gurea zinema aretoan 19.00etan.

MUSIKA

ANDOAIN

Martxoak 2: Oskorri eta Maskarada: "Landalan". Allurralde kiroldegian 22.00etan.

Martxoak 3: Txirri, Mirri eta Txiribiton. Allurralde kiroldegian 18.00etan.

ANTZERKIA

ANDOAIN

Otsailak 24: Hitz Erdi taldeko Mikel Elorzak "Izan ala..." lana antzezutako du 7.30etan La Salleko aretoan.

LEHIAKETAK

ANDOAIN

1997ko hauterietako kartel iragarlea. Parte hartzeko baldintzak: 16tik gorakoa eta andoaindarra izatea; gaita herriko ihauterietara mugatuko da; parte hartzaile bakoitzak lau lan aurkeztu ahal izango ditu gehienez. **Ianak martxoaren 4-8 bitartean aurkeztu** behar dira Kultur Etxean. **40.000 pezetako sari bakarria izango da**

BESTE

Larramendi Kultur Bazkunaren bilerak:

Billabona: martxoak 4. 20.30etan Kultur Etxean

Asteasu: martxoak 5. 21.30etan Billabonako euskaltegian

ZINEMA

BILLABONA

GUREA ZINEMA

Otsailak 23-24-25-26:

"El día de la bestia"

Martxoak 1-2-3-4:

"Algo de que hablar"

Martxoak 8-9-10-11:

"La isla de las cabecillas cortadas"

Martxoak 15-16-17-18:

"Show girls"

MARTXOAK 8 - EMAKUMEAREN EGUNA

ANDOAIN

Hitzaldiak: **Kultur Etxean 19.30etan:**

Martxoak 5: "Menopausia". Hizlaria: Fernando Cristobal ginekologoa.

Martxoak 6: "Emakumea eta lana". Hizlaria: Koldobike Uriarte. Emakundeko ordezkaria.

Martxoak 8: "Anorexia eta bulimia". Hizlaria: Marta Agirre eta Eneko Sansinenea psikologoa.

Antzerkia:

Martxoak 9: Mujercitas taldeak antzezutako "Variaciones o también Merlín murió de mal de amores". La Salle antzokian 19.30etan.

ZIZURKIL

Hitzaldiak **Kultur Etxean 19.00etan:**

Martxoak 5: "Emakumea eta depresioa"

Martxoak 7: "Bikote ezkonduen eta ezkongabeen egoera legalaren aurrean".

Martxoak 8: Emakumeentzako afaria sagardotegian.

Antzerkia:

Martxoak 6: *Laureano Sinfin* taldeak "La burla" antzezlan eskainiko du Kultur Etxean 19.00etan.

Martxoak 8: **Haurrentzako txo- txongilo** saioa Kultur Etxean 15.00etan: "Neska-mutilen gauzak".

BALDINTZARIK GABE PRESOK
EUSKAL HERRIRA!!!

Hauteskunde ingurumari honetan oso gogoko izan ohi dute politikari profesionalek euskal presoen inguruan hitzegitea, kasik guztietan errealitatearen ezagutza zuzenik gabe eta alderdikeriei so eginez. Eusko Alderdi Jeltzaleak (barkatu "z" azeptzioa ahantzi bazait) horretaz asko daki.

Bada, jaun-andreok oraingoan badute zer hitzeginik, ziur байнаiz esku artean dutela berriki euskal preso kolektiboak euskal gizarteari zuzenduta, argitara eman duen dokumentu ofiziala. Bidenabar, hor ditugu benetan elementu politiko inportanteak. Horrexegatik, gutun honetan ere, ene ustez, klabeak diren aspektuak bildu nahi izan ditut. Euskal presoen ahotsa eta izanak ez baitu lekurik kultura mediatiko honetan.

Bistan da, beste behin euskal presoak abertzale orok kontuan izateko exenplua luzatzen ari zaizkigula. Beste behin diot, euren bidezidor politiko osoa exenplu izan baita. Urtarrilaren 15az geroztik gose greba mugagabeen daude euren oinarritzko eskubidea den Euskal Herrian berbatzearen alde. Eurek argi dute eskubide hori errespetatu artean borrokan jarraituko dutela.

Sakabanaketak huts egin du, politikoki frakaso bat izan da. Hala ere, euren azaletan bizi behar dituzten zauriak nabariak dira: gartzelak hildako lagunak, Migel Zalakaïn kasu,

senideei egotzitako zigorra, Euskal Herrian berbatzea euren eskubidea da, oinarritzkoa, eta ez inola ere salmentan edo merkealditan jar daitekeen aldarrikapena. Zentzu honetan, ozenki salatu behar da PNVren maniobra politikoa, urteetan zehar suari egurra botaz ibili eta orain inolako erantzukizunik ez balu bezala.

Espainiar zein frantziar estatuotako ziegetan, baita belgiar eta alemandarretan ere, herri oso baten etorkizuna bahituta dago. Presoek herritan salatu dute jabego zergak ere kobratu nahi zaizkiela, gutzia kontzesio bat bailitzan. Baina zein helbururekin? ETA erakundeari txantaita egiteko asmotan agian? Edota Ezker Abertzale osoari? Ziur naiz, Euskal Herri osoari!

Euskal proiektu politiko bat defendatzen dute, Euskal Herriaren askatasunarena, eta horregatik daude preso eta horregatik euren zeldetatik tinko jarraitzen dute borrokan. Ezinbesteko zaigu askatasunaz hitzegin nahi badugu, AMINISTIAZ hitzegitea, eta bide horretan sakabanaketa gaingidutzea. LOTU DENOK BORROKARI!! Merezi du eta.

Ezin ahantzi nire lagun min diren eta gose greban dauden Gerba, Alex eta Agiri. Nire besarkadarik beroena luzatu eta herritar guztiak funtsezko komunikatu hau irakurtzera gonbidatu nahi ditut gutun honen bitartez.

Esti Amenabar

**Oraindik AIURRI
aldizkaria
etxean jasotzen
ez baduzu zeren
zain zaude?!**

Deitu telefono honetara



30 07 32



Talleres KARRIKA, C.B



Ubilluts auzunea. 56.Pol. 10.zenb. ☎ 30 02 14 - 20140 ANDOAIN (Gipuzkoa)

• AUTO KONPONKETA

• BERRI NAHIZ
BIGARREN ESKUKO
AUTO SALMENTA



**AZKEN OPEL TIGRA
BERRIARENTZAKO
OSAGARRIAK**

fotocolor

ERREBELATUA ORDU | EAN

Zure argazki
denda



Kodak
EXPRESS
SERVICIO DE CONTROL DE CALIDAD

JOSE IGNACIO UNANUE
JUAN BTA. ERRO 1 - ☎ 59 43 32
20.140 ANDOAIN